



hariak

2018ko otsaila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesia izan du, honako proiektu honen markoan *Hariak ehunduz. Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin* (2015). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizabal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

4.zk., 2018ko otsaila

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia:

Joseba Sainz de Murueta 

Patricia Hill Collinsen aipamen biografikoaren itzultzaileak: Itziar Mujika Chao eta Unai Villena Camarero.

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.es

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

Zure iritzia interesatzen zaigu.

Galdetegi labur honi erantzutea eskertuko genizuke.

<http://hariakhegoa.limequery.com/622675?lang=eu>



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapen dago. Baimena duzu lan hau kopia, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

aurkibidea



2

editoriala

Ideiak prozesatuz, prozesuak asmatuz...
Joseba Sainz de Murieta Mangado

4

sakonean

Garapen eta hezkuntza emantzipatzailearen arazo ontologikoa;
Latinoamerikako garapenerako hezkuntzak egindako hausnarketak
Israel Arturo Orrego Echeverría

12

solasean

Hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea, feminismo beltzaren epistemologiatik
Patricia Hill Collins eta Jone Martínez-Palacios

20

ekin lanari

Florestan Fernandes Eskola Nazionala: Langileriaren Eskola
Janaina Strozake eta Judite Stronzake

Zigorrarekiko alternatibak, gizarte-mugimenduen esperientziatik
César Manzanos Bilbao

Astra, kultur sormenerako, elkarrekintzarako, esperimentaziorako
eta aldaketa sozialerako proiektua
Astra

Jineoloji, emakumeen eta elkarbizitza librearen zientzia
Victoria Krieger

28

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak La educación en movimiento • Inka Samana

argitalpenak Educación ecosocial. Cómo educar frente a la crisis ecológica
• Interculturalidad y educación desde el Sur. Contextos, experiencias y voces

erakundeak Centro de Estudios del Pensamiento Latinoamericano
• Colectivo Insurgencia Magisterial

ezinbesteko agenda "Pedagogia emantzipaziozkoak praktikatu, trebatu, birpentsatu eta zalantzan jarri - Aktualitateak eta eztabaidak" nazioarteko solasaldia • "Topaketak, Elkarrizketak eta Kontakizunak Hegoaldeetatik" Antropologiako Nazioarteko IV. Kongresua

32

matxino artean

Shock
Anna Tijoux

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Ideiak prozesatuz, prozesuak asmatuz...

Hariak aldizkariaren lehen hiru zenbakien ondoren (lehen, subjektu politikoaren eraikuntzari buruzkoa; bigarrena, eraldatzeko komunikazioari buruzkoa, eta hirugarrena, jakintzaren eta boterearen arteko harremani buruzkoa), laugarren zenbaki honek beste gai bat jorratuko du. Hezkuntza askatzaile bat planteatzerakoan, beharrezko eta oinarritzotzat jotzen den gaia: hezkuntza prozesuak eraldaketa sozialerako.

Hezkuntza prozesuez hitz egitea da, hala indibidualki nola esparru kolektibotik, eraldaketa globalera bideratutako pentsamendu eta ekintza politikoak sortzea ahalbidetzen duten oinarriak finkatzen dituzten ikasketez hitz egitea.

Eraldaketa prozesu horiek aztertzeko, lehenik, hausnarketa prozesu bat egin behar da, eragileak eta mugak zein diren identifikatzeko eta biziako prozesu hori berreraiki eta ordenatzeko. Fase horri esker, esperientzia aztertu eta interpretatu ahal izango da, eta desiratutako eraldaketa helburuak eta xedeak zein diren zehaztu, aldaketaren eta justizia sozialaren iruditeria berriak sor daitezen.

Ezinbestekoa da prozesuan erabili diren mekanismoak ezagutzea, gure pentsamenduak eta gure praktikak diskurtso hegemonikoetatik askatzeko, eta identifikatzeko botereak zein espazio eta egitura erabili dituen, horiek sistematikoki irakasteko.

Bizitako prozesuen sistematizazioa, bere horretan, ekintza pedagogiko bat da, aukera ematen diguna nor bere praktikak berreskuratu eta balioesteko, gero, horien gainean eta horietatik abiatuta horiek eraldatzeko ezagutza berriak sortzeko.

Azken hamarkadetako esperientziak eta gure gizarteak aurre egin beharreko erronka berriek (eta zaharrek) erakusten dute aldaketa askatzaileak ez direla goitik beherakoak, eta, beraz, nahitaez sortu behar direla espazioak eta dinamikak, oinarrietatik, eraldaketa egoki eta beharrezkoak sustatzeko.

Heziketarako espazioak birpentsatzeko eta hezkuntza berrikuntzak pentsatzeko jardunak propio egindakoa eta planifikatua behar du izan. Jardun hori bideratu behar da paradigma akademizista tradizionala gainditzen duten eta, era berean, ezarritako botereei aurre egiteko tresnak dituzten subjektu politikoak izan daitezen sustatuko duten ezagutza eta gaitasunak lortzera, hala, etengabe injustiziak eta zapalkuntzak deuseztatzeko oinarriak finkatuko baitira.

Espazio formaletan, informaletan eta ez-formaletan ematen diren hezkuntza prozesuek pixkanaka-pixkanaka joan behar dute sartzan irakaskuntza-ikasketa prozesuetara, zeintzuek agente anitzak dituzten eta ekarpena egiten duten eraldaketa sozialerako bidean. Hain zuzen ere, eraldaketa sozial horrek lehentasunezko helburu ditu giza eskubideak, iraunkortasuna eta justizia soziala.

Hezkuntza prozesuen eraldaketa hori ez da erronka bat bere horretan, izan ere, sortu behar diren ezagutzei (ikerketa) eta transmisioari (heziketa) ez ezik, metodologiei, espazioei, pertsoneri eta prozesu honetan egon behar diren balioei ere interpelatzen die. Imaginario kolektiboak sortzeko dei bat da, zeinetan harremanetarako eta antolatzeko beste modu batzuk egongo diren eta dibertsitatea (kulturala, soziala, sexuala, klasearena, generoarena...) elementu giltzarri eta aberasgarritzat jotzen den.

Zentzu horretan, bereziki garrantzitsua da aztertzea zein den hezkuntza prozesua unibertsitatean, eraldaketarako agente giltzarria baita. Ezinbestekoa da aztertzea akademiaren egungo joera merkantilista eta meritokratikoak –eremu formaletatik kanpo uzten dute kalitatearen eta bikaintasunaren adierazle hegemonikoekin bat ez datozen ezagutza, agente eta praktikak– eta bide berriak aurkitzea egungo gaitasun utilitaristetatik eraldaketa sozialarekin konprometitutako hiritar globalarentzat beharrezko diren gaitasunetara igarotzeko.

Aldaketarako gaitasun eta metodologia eta praktika horiek zehaztea, bere horretan, hezkuntza prozesu bat da, eta, bertan, agenteek eraldaketaren subjektu eta objektu gisa posizionatu beharko dute, bai eta aldaketa prozesu sortzaile eta kritikoen buru izan ere. Prozesu horietan uztartu behar dira gizarte eta natur zientziak, arrazoia eta pasioa, espazio formalak, informalak eta ez-formalak; azken finean, prozesu horiek emango dizkigute ezagutzak eta tresnak, egungo sistema globalizatu honetako ziurgabetasun eta arriskutik esperantzazko eta justiziazko etorkizunerantz nabigatzeko.

Hariak aldizkariaren laugarren zenbakia pertsona, ahots eta ikuspegi askotarikoak biltzeko asmoa duen prozesu baten parte ere bada, hala, guztion artean, ezagutzak txertatzeko nork beretik eta gure erakundeetatik sustatzen ditugun prozesuetan. Zuei guztioi gure eskerrik zintzoenak, zuen ekarpen eta lanengatik eta ilusioagatik. Bereziki azpimarratu nahi dugu Jone Martínez-Palacios eta Evin Denizen laguntza.

Azkenik, editorial hau bukatu nahiko nuke 2014an Vitoria-Gasteizen *Hezkuntza aldatzea, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!* izenburupean egin genuen Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarraren ondorioen amaierako paragrafoa gure eginez:

Ezdugubukatu. Pentsatzen, erronkajotzen, ekiten, helmuga utopikoetarantz ibiltzen jarraitzen dugu. Elkarrekin KOMUNIKATUZ, HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEKO PROZESUEN bitartez BOTERE HARREMANAK, iraultzen dituzten SUBJEKTU POLITIKOAK gara.

Joseba Sainz de Murieta Mangado.
Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakaslea
eta [Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzako kidea](#)

sakonean



Arturo Orregok utzitako irudia.

Garapen eta hezkuntza emantzipatzailearen arazo ontologikoa; Latinoamerikako garapenerako hezkuntzak egindako hausnarketak

Israel Arturo Orrego Echeverría. Fflososo eta teologo kolonbiarra. Filosofian doktoregiaia [Santo Tomás Unibertsitatean](#), filosofia latinoamerikarrean masterduna, eta hezkuntza, kultura eta politikan aditua. Irakasle eta ikertzailea Berrikuntza Sozialak Hezkuntzan Masterrean eta [Minuto de Dios Unibertsitate Korporazioko Hezkuntzaren Garapenerako Zentroan](#). Irakasle katedraduna Unibertsitate Libreko Filosofia Fakultatean. Hainbat artikulu akademiko, liburu-atal eta liburu idatzi ditu filosofia latinoamerikarrari, filosofiari, hezkuntzari, ontologiari eta epistemologiari buruz.

Aurrerapena, kausalitatea, erlazionalitatea eta zientzia dira errealitatea ezin atzeman dezakeen adimen nahasiaren obsesioak. Eta hori alienazioa da.

Rodolfo Kusch

Aldaketa politiko, ekonomiko, sozial eta kultureko inguruneetan hezkuntza emantzipatzaileak duen zereginaz hausnartzeak duen garrantzia begi bistakoa da, oro har, Latinoamerikan gaur egun dagoen egoeran eta abagunean, eta, bereziki, Kolonbian egin dugun lanketan. Hezkuntzak garapenaren arloan duen egitekoa ez da garapenaren alternatibak sortzera mugatu behar. Aitzitik, zalantzan jarri behar du muin epistemikoa, ontologikoa eta arrazionala, logika baztertzailak eta subalternizatzaileak zabaltzeko euskarria izan dena.

Idazki honetan, Latinoamerikako perspektibaren arabeko Garapenerako Hezkuntzaren ikuspegitik (EpDI) garapenaren diskurtsoari egin zaizkion ekarpen kritiko, ontologiko eta epistemiko batzuk landu ditugu, hezkuntza emantzipatzailearen eraikuntza kritikoari laguntza eman nahian, kultura-, politika-, ekonomia- eta hezkuntza-arloan etengabe aldatzen ari diren egungo testuinguru hauetan.

Garapenerako hezkuntza, Latinoamerikako *perspektibatik*

EpDI, Latinoamerikako hezkuntza emantzipatzaileen adierazpide gisa, garapen eta hezkuntzako eredu hegemonikoen kritika du abiaburu, eta kontzientzia piztu nahi du ekoizpen kultural, politiko, ekonomiko eta epistemikoko harreman eta egitura globaletan zenbait subjektuk eta kulturek betetzen duten menpeko edo bigarren mailako tokiaz (López, 2012; Orrego, 2014).

Egoera horrelakoa izanda, EpDI-k elementu kontzeptual eta lanketa tematiko eta teoriko batzuk partekatzen ditu Europako GGKE-en eztabaidetan sortutako Garapenerako Hezkuntza izenekoarekin (ED) (Argibay, M., Celorio, G., 2005); alabaina, berezko izaera hartu du pixkanaka, alde batetik, ekintza pedagogikoa egiteko testuinguru sozialak eta kulturalak (Europa-Kolonbia), eta, orobat, sozializatzeko agertokiak (GGKE-Unibertsitatea) desberdinak direlako, eta, bestetik, hezkuntzako ekintzan esku hartzen duten subjektuek garapen eta hezkuntzako harremanen egituran betetzen duten tokia dela-eta.

Ildo horretan, hizpide dugun Latinoamerikako perspektibak ez du espazio geografiko zehatz batean bizi den giza talde bat homogeneizatzeko asmorik, are gutxiago talde sozial zehatz bati nolabaiteko hierarkia epistemikorik edo etikorik emateko xederik. Aitzitik, *Abya Yalako* herrien eta subjektuen bizi-esperientzia eta esperientzia epistemiko heterogeneoa eta enuntziazioko *locus*-a erakutsi nahi ditu. Enuntziazio-leku hori tentsioan dago jakintza unibertsalistaren geopolitikarekin, hori normalean mendebaldeko arrazionaltasunari egokitzen baitzaio, epistemeak eta jakintzak kokatuak eta testuinguruaren araberakoak direla baitu abiaburu, eta horrek esan nahi baitu enuntziatzen diren tokiarekin dutela harremana (Mignolo, 2005; 2007).

EpDI-k ahalegina egiten du, testuinguru partikularrak eta pentsamendu kokatua eta testuinguruko abiaburutzat hartuta, hausnarketa eta eraldaketa sozialak sortzeko, EpDI-ren ustez, hezkuntza-prozesua eta gogoeta bera ekintza baita, "praxeologia" baita (Juliao, 2014; González, 1997), hau da, mugimenduan eta eraldatzen ari den prozesu dinamiko bat, hezkuntzako praxiaz, dagozkion edukiez eta eraldatzeko duen agendaz etengabe hausnarketa egitea eskatzen duena.

“Era horretako pentsamendu kokatu eta testuingurukoak ezagutza- eta jakintza-modu desberdinak bateratzen ditu, eta horregatik ez da eduki eta gaietan ardazten, eragin-truke sozial zehatzetan azaltzen diren arazoetan baizik”

Era horretako pentsamendu kokatu eta testuingurukoak ezagutza- eta jakintza-modu desberdinak bateratzen ditu, eta horregatik ez da eduki eta gaietan ardazten, eragin-truke sozial zehatzetan azaltzen diren arazoetan baizik. Latinoamerikako Pentsamenduaren Zentroak ere (Raíz-AL) ildo berean kokatzen du norberaren pentsamenduaren ulermena:

...norberaren pentsamenduak proiektu bat dakar berekin, existentzia eta interbentzioko baldintza zehatzetatik (baina horretara mugatu gabe) jakintza pertinentea ekoizteko tresnak eta inputak sortzeko eta hausnartuz hurbiltzeko. Pentsamendu lokalizatua da, baina ez da lokala. Esku hartzeko eta eraldatzeko asmo politikoa duen pentsamendua da, baina ez du pentsamendua ezabatu nahi, ezta bera ordezkatu eta politika jarri nahi ere. Pentsamendu erantsia eta kokatua, pentsa daitekeenaren baldintzak eta egoera bereziak agerian jartzen dituena... Ildo horretan, norberaren pentsamendua sustraitua da, hau da, testuinguruan jarriak kokatua, pertinentea-adierazgarria, berariazkoa, berezia denak (historikoki lokal-izaturia denak) duen dentsitatearen berri ematen duena. Alabaina, sustraitua dena ez da finkoa; sustraitutako pentsamenduaren ondoriozkoa baita. (Raíz-AL, 2015:36).

EpDI-k Kolonbiako Minuto de Dios Unibertsitatean (UNIMINUTOn) izandako esperientzia bereziari dagokionez, hezkuntzako proposamena pedagogikoa eta ikerkuntzako ariketa bat egiteko eratu da, eta horrek bide eman du garapenak dakartzan arazoei buruzko eztabaida teorikoa eta kritikoa egiteko, herritarrek parte hartzeko espazioekin, Erantzukizun Sozialaren Praktika deitu izan denaren bidez. Espazio horretan, UNIMINUTOk ikasleek erakunde sozial eta komunitarioei lotutako era askotako proiektuetan hartu dute parte, seihileko akademiko batez.



Arturo Orregok utzitako irudia.

Espazio akademikoen eta erakunde sozialen arteko eragin-trukeaz, unibertsitateko irakasle, ikertzaile eta ikasleekiko elkarriketaz eta garapenerako hezkuntzari buruz egin diren nazioarteko bi biltzarrez elikatu da orain arte EpDI-ren ikuspegia, testuinguruan kokatutako hezkuntza emantzipatzaile eta kritiko gisa, edukiak eta gaiak nabarmendu ordez, testuinguruan azaltzen diren arazoak egituratu eta zentzuz hornitu nahi baititu, pobretzeko eta mendeko bilakatzekeo prozesu sistematikoak eraldatzeko.

Testuinguru berezi horretan, EpDI-k dituen ikuspegi kritikoetako batzuk proposatu nahi ditugu, hezkuntzako agenda emantzipatzaileetan sartzeko modukoak baitira.

Garapena *telos* gisa desnaturalizatzea

Latinoamerikan politika publikoak, ekonomikoak eta hezkuntzakoak legitimatzeko elementurik garrantzitsuenetako bat "garapena" *telos* gisa hartzen duen ideia da oraindik, ekintza sozial, politiko, ekonomiko eta hezkuntzako guztiek izan behar duten helburua. Itxuraz, ezker, erdi eta eskuinaldekotzat jotzen diren gobernuen joerak ikusita, denek babesten dute pobretutako eta

mendean hartutako gehiengoan alde ez doazen aldaketak, doikuntzak eta esku hartzeko prozesuak "garapenaren" izenean egiteko beharra. Hortaz, teknikariak eta adituak ugaltu dira, eta garapena bultzatzen duten gramatika eta instituzio berriak eta programa akademikoak eta ikuspegi pedagogikoak sortu dira.

Garapenaren ideia zernahitarako hitza izan da, esanahi eta zentzu ugariz hornitu baita, interes ekonomiko, politiko eta epistemiko jakin batzuk legitimatzeko teknologia gisa erabilia. Horrez gain, Kolonbiako Eduardo Restrepo (2017) antropologoak ikusi duenez, garapenaren ideia, batetik, kanpoko inposizio bat izan da, hau da, jendearen, herritarren eta herriaren izenean ezarri da bortxaz; eta, bestetik, herritarren eskaera gisa ere baliatu da, hots, irrika kolektibo gisa eta sarritan lorpen "demokratikoko" espazio modura:

Irudimen desarrollistako hamarkadetan izan den *sui generis* produktuetako bat garapena izateko desira da, "garatua izateko" irrika. Zalantzarik gabe, garapenak lortu du biztanleriako sektore batzuen irudimenari eta afektibitateei interpelatzea, haien izenean zabaltzen baita garapena. Jendearen izenean egindako inposizioa izatetik, garapena jendeak egindako eskaera izatera iritsi da (Restrepo, 2017:20).

Testuinguru horretan, EpDI-ren esperientziatik abiatutako hezkuntza emantzipatzaileak ekarpena egin diezaioke garapena desnaturalizatzeko prozesuari, alde batetik, mendekotasun kultural eta ekonomikoko kanpoko gailu gisa garapenak dituen ondorioez kontzientzia harrarazten, eta, bestetik, garapena irrika subjektibo gisa jotzeko edo izan nahi dena hartzeko ikusmoldearen dekonstrukzioa egiteko (López eta Orrego, 2012; Orrego, 2014).

Hala ere, Arturo Escobar antropologo kolonbiarraren (1998) eta Fernando Coronil (1998) venezuelarraren lanei helduta Restrepok azaldutako ikuspegiak Latinoamerikan egindako garapenaren lanketa kritikoa ere jartzen ditu zalantzan, haren ustez, desberdintasuna besteratzeko logikak baitituzte euskarri, paradoxikoki bada ere, biztanleriak, kulturak eta jakintzak mendekotzat hartzeko dikotomia finkatzen baita horietan, adibidez, mendebaldea-ekialdea, garatua-azpigaratua, indioa-zibilizatua dikotomiak. Restrepok salatzen du besteratzeko teknologia horiek eskaera emantzipatzaileen parte ere badirela Latinoamerikako garapenaren kontrako mugimendu batzuetan.

...besteratzeko teknologiek bestelako erradikal gisa agertzen dituzte jende eta geografia batzuk, "gurekin" erkatuta erabat desberdinak diren beste batzuk, gutxiagotutako leku batean eratuta daudenak, ezinbestez hortik libratu beharrekoak (Restrepo, 2016:30).

Ikuspegi horretatik, garapena eta azpigarapena erradikal gisa sortzeko prozesua bera benetan zalantzan jarri ahal izateko, garapenak "azpigaratuengan" dituen ondorioak aztertzeaz gain, garapenaren sorrera bera ikertu beharko da, besteratzeko teknologia gisa eta, azken batean, kolonialismo modernoaren adierazpide gisa sortu baita.

Garapenaren problematizazio ontologikoa

Garapena besteratzeko teknologia gisa hartzen duen ideiarene analisi eta diagnostikoa hizkuntzako askakuntza modura erabiltzen da normalean, eta ezinbestekoa da garapenaren eta hezkuntzaren arazoetan sakontzeko, baina, horrez gain, funtsezkoa da besteratzeko arrazionaltasun horren azpian dagoen egitura ontologikoa argitzea. Bestela esanda, bes-

“ Testuinguru horretan, EpDI-ren esperientziatik abiatutako hezkuntza emantzipatzaileak ekarpena egin diezaioke garapena desnaturalizatzeko prozesuari ”

teratzeko prozesu horiek askakuntza eta sorkuntza homogeneizatzaileetan agertzen den desberdintasun erradikalaren egitura epistemiko eta ontologikoaren arabera izaten dira.

Illo horretan, EpDI-ren ustez, garapenari egindako kritika ez da soilik giza garapenaren (giza, gizarte-edo komunitate-garapenaren) "alternatibak" sortzea, edota garapena besteratzeko egitura gisa aztertzea, baizik eta garapenak -hizkuntza-askakuntza edo besteratzeko teknologia gisa- funtzionatzeko duen arrazionaltasun-modua azalaraztea. Horrek ez dakar berez Mendebaldea esentzializatzea, beste homogeneo baten gisa, baizik eta zalantzan jartzea arrazionaltasun lineal, progresibo eta ekonomizista jakin bat, hainbat kultura eta espazio geografikotako praktiketara errepikatua.

...EpDI-k bokazio ontologikoa du, ez esentziak zehazteari eta enuntziatzeari dagokionez, baizik eta eratzen dituzten botere-jakintzako sareak argitzeari begira, eta gizakia, historia eta haren bilakaera dela esaten den horren gaineko nozio hegemonikoak ere bai (Orrego, 2014:242).

Hortaz, EpDI-ren ikuspegitik, hezkuntzako jardun emantzipatzaileak zalantzan jartzen ditu *telos* idealizatu zehatz bat finkatzen duten kultura, ekonomia, politika eta generoko harremanen ulermenak, *telos* hori errealtatea doitzeko eta oraina proiektatzeko arau eta moldetzat hartzen dutenak. Hau da, zalantzan jartzen du garapenaren errealtatea, "izan-behar" denaren diskurtso ontologiko gisa, eta historia goraldi iraunkorren eta amaierarik gabeko aurrerapenean ikusten duen denboraren ulermen eskatologiko gisa. Ulermen ontologiko horiek gabe, garapenak, besteratzeko teknologia eta praktika ekonomiko gisa, ezin izango luke funtzionatu.

EpDI-n arazo ontologikoarekin zerikusia duen beste elementu bat ontologia erlazionalerantz hausnartzeko ahaleginari dago lotuta, hau da, erreala dena erlazionalitate esentzial gisa ulertzen duten ontologiez (Estermann, 2006; Escobar, 2014). Modernitatearen ontologia dualistek ez bezala,



Arturo Orregok utzitako irudia.

horiek bereizi egiten baitituzte gogoia eta gorputza, natura eta kultura, zibilizatua eta barbaroa, norbanakoei manipulatuak objektuekin mundua ikustera behartzen duen arrazionaltasun kapitalista modernoarentzat hain funtsezkoak diren dualismoak. Antonio Escobarrek adierazi bezala (2014), ontologia dualista horietan: "*gure burua ikusten dugu subjektu autosufiziente gisa, era berean autosufizienteak diren eta guk askatasunez manipulatu ditzakegun objektuz osatutako mundu batean bizi garela edo haren aurrez aurre jartzen garela*" (58).

Ontologia-forma desberdinak eredu epistemikoetan adierazten dira, bai eta giza bizitzaren administrazioko praktiketan ere, tradizio fenomenologikoak "biziaren munduan" deitu duen horretan. Hau da, itxuraz, egitura ontologikoak bat egiten du mundua eta errealitatea irakurtzeko dauden praktika zehatzekin eta eredu epistemikoekin. Hortaz, Arturo Escobarrek ikusi bezala (2014), bizitza eta natura administratzeko praktiketan dauden desberdintasunak egitura ontologiko berezi baten adierazpidea izan daitezke:

Adibidez, naturaren izaera bereizari buruzko premisen enakzioak eta, orobat, "ekonomian" eta "elikaduran" pentsatzeko moduak monolaborantzaren nekazaritza-moldera eramaten gaituzte (aitzitik, ontologia erlazionalak landaketa-molde osoko eta askotariko batera eramaten gaitu,

nekazarien edo indigenen finka-sistema askotan agroekologiak erakusten duenez). Mendia izaki sotil eta inertetzat edo bizirik gabeko objektutzat hartzen duen ontologiaren enakzioak haren suntsipenera eramaten gaitu, aire zabaleko urre- edo ikatz-meatzaritzan gertatzen den bezala. Mendia sentitzen duen izaki gisa hartuz gero, emango zaion tratamendua oso bestelakoa izango da (58).

Arturo Escobarrek garapenaren arazoez aukera ontologikoetatik birpentsatzeko proposatutakoa ere filosofiaren ikuspegi interkulturaletik landu du Josef Estermannek (2006). Itxuraz, bi egileen arabera oso garrantzitsua da erlazionalitate ontologikoaren printzipioa, "ezin da egon erlaziorik ez duen izakirik" premisatik ulertuta (Estermann, 2006:127); eta, hitz positiboetatik hartuta, izakia edo baden zera hori zehaztapena, erlaziozko nodoa edo erlazioa bera da (Orrego, 2014).

Bestetik, Andeetako pentsamendua aztertzean, Estermannek erakusten duenez, erlazionalitatearen printzipio orokorretik bigarren mailako edo ondoriozko beste hiru printzipio ateratzen dira: korrespondentzia, osagarritasuna eta elkarrekotasuna.

- Lehenaren, korrespondentzia printzipioaren arabera, errealitateko alderdiek edo esparruek bi

norabidetako korrespondentziako erlazioa dute, eta horrek erlazio kualitatiboak, ospatzekoak, afektiboak eta erritualak hartzen ditu barnean. Korrelazio-mota hau sinboliko adierazgarria da: "Presentzia sinbolikoa' ez da errepresentazio (kognitibo) bat, baizik eta 'presentazio' *sui generis* bat, efikaziako berezko logika ez-kausala duena" (Estermann, 2006:139).

- Bigarren printzipioa, osagarritasuna, modu negatiboan adieraz daiteke, erabateko substantzialitatearen ukapena balitz bezala, edo, mendebaldeko tradizioetan esan denez, "eskasia ontologikoa"; horrek esan nahi du ez dagoela berez eta bere kabuz existitzen den izakirik. Lehen printzipioa tentsioan dago efikaziaren eta kausa-ondorioaren ideiarekin; osagarritasunaren printzipioa, berriz, kontraesanik ezaren printzipioarekin dago tirabiran. Izan ere, osagarritasunak berariaz nabarmentzen du aurkakoak-osagarriak hirugarren entitate batean sartzea:

Zerua eta lurra, eguzkia eta ilargia, argia eta iluna, egia eta gezurra... ez dira kontrajarrera baztertzaileak, baizik eta osagarri beharrezkoak entitate 'goren' eta osoko bat berresteko... Andeetako ideala ez da 'mutur' bat, bi 'aurkakoetako' bat, baizik eta bien integrazio harmoniatsua (2006:142).

- Eratorritako hirugarren printzipioak, hau da, elkarrekikotasunak dioenez, ekintzek eragina dute elkarrengan edo elkar baldintzatzen dute, eta, horregatik, printzipio honek ez du eragin-truke aske eta borondatezko harremanik aurreuposatzen, 'betebehar kosmikoa', agindu etikoa baizik: "Azken batean, 'justizia' (meta-etikoa) da, ondasun, sentimendu, pertsona eta are erlijiozko balioen 'trukearena'" (2006:145).

Esparru orokor horretan, hezkuntza emantzipatzaileak lagun egiten die bazterketaren indarkerian eta unibertsalismo totalizatzaileetan oinarritzen diren epistemologiak eta ontologiak desnaturalizatzeko prozesuei, baina, era berean, agerian jarri behar ditu ontologia erlazionalek eta, oro har, indarkeria ezaren epistemeek irauteko izan duten agertokiak eta sorburuko lekuak. Hortaz, EpDI-ren ustez, indarkeria eza, printzipio etikoa izateaz gain, printzipio epistemikoa ere bada, garapen-jakintza-indarkeria-boterearen arteko harremanaz egiten baitu galde.

Garapenaren dekonstrukzioa egin behar da, bortxazko egitura ontologiko baztertzailea eta hierarkizatzailea duelako. Hortaz, jakintza eraikitzeari

“Garapenaren dekonstrukzioa egin behar da, bortxazko egitura ontologiko baztertzailea eta hierarkizatzailea duelako. Hortaz, jakintza eraikitzeari dagokionez, indarkeria ezaren printzipioa ezinbestekoa da hezkuntza emantzipatzailearentzat”

dagokionez, indarkeria ezaren printzipioa ezinbestekoa da hezkuntza emantzipatzailearentzat. EpDI-n, indarkeria ezak gatazkaren ulermen positiboa ekartzen du, gatazkak aukera ematen baitu bidegabekeriako erlazioak eta unibertsaltzat eta transkulturaltzat hartutako jakintza-ereduetan legitimatutako indarkeriak agerian jartzeko.

Indarkeria ezaren eragina duen jakintza bizitzarako –eguneroko bizitzarako eta bizitza biologikorako– jakintza izango da, bai eta indarkeria-mota guztiak –naturaren kontrako indarkeria barnean-arbuiatzeko, bizitza osoa jartzen baitu agerian sistema gisa –giza esparrutik harantz– (López, 2012:244).

Indarkeria ezaren epistemeak birpentsatzeko, botere-jakintzari buruzko galdera lotzeko esparru horretan, EpDI-k zalantzan jarri du arrazionaltasun modernoak gizakiari eman dion rol hierarkizatu eta antropozentrikoa. Izan ere, horixe da ontologia tradizionalaren eta epistemologia modernoaren desberdintasun baztertzaileetako bat, gizakiaren eta naturaren arteko funtsezko bereizketa, baina ez soilik bereizketa, giza animaliak gainerako izaki bizidunen gainetik jartzen duen hierarkia ere bai.

Antropozentrismo horren arazoa da ordena bio-soziala antolatzen duela maila globalean, gizakia eta natura bereizten dituen eskema dikotomiko eta hierarkizatu batetik. Itxuraz, dikotomia hori ukitu gabe geratzen da, garapenaren diskurtsoan "giza arloan" gehien ardatzen diren bertsoetan ere bai. Hargatik, ingurumeneko arazoak ez dira bakarrik garapen kapitalistaren eredu jakin baten ondorioa; izan ere, nagusi den arrazoitik abiatuta errealitatera hurbiltzeko moduaren ondorioa ere badira.



Arturo Orregok utzitako irudia.

Errealitatearen ezagutza erlazional eta emotibo baterantz

Hezkuntzaz eta garapenez –eta, orobat, botere-jakintzako harremanez– hausnartzeak duen ondorioetako bat da hezkuntza emantzipatzailearen lanketa askok darabilten bereizketa gnoseologikoa eta arrazionala. Sarritan, itxuraz, prozesu emantzipatzailea harrapatuta geratzen da, inguruan dituen egoerez kontzientzia hartu duen subjektu arrazionalaren diskurtso modernoan; hori zientzia modernoaren dualismoan eutsitako urruntze epistemikoaren bereizgarria da.

Hezkuntza emantzipatzaile eta kritikoak, garapenaren diskurtsoari eusten dioten bortxazko ontologiak eta epistemeak zalantzan jartzeaz gain, jakintzako forma berrietarako joera izan behar du. Latinoamerikako esperientziari dagokionez, oso baliotsuak izan dira ikuspegi dekolonialek eta antzinako jakiturien lanketek egindako ekarpenak, haien abiaburua ez baita subjektu-objektu paradigma, subjektu-objektu harremana baizik.

“ Hezkuntza emantzipatzaile eta kritikoak, garapenaren diskurtsoari eusten dioten bortxazko ontologiak eta epistemeak zalantzan jartzeaz gain, jakintzako forma berrietarako joera izan behar du ”

...kontua da besteen bizitza zehatzarekin konpromisoa eratzea, borrokak zatikatzen eta sektoreka banatzen dituzten identitateko zatiketak gainditzea; eta ulertzea, *zatikatu eta irabaziko duzu...* esaeraren aurrez aurre, merkatuak zatikatutako eta, paradoxikoki, merkatuaren mendean bateratutako giza errealitatea ber-lotuko duen pentsaera bat azaldu daitekeela (Orrego, 2014:252).

Zentzuaren aukera horietan, errealitatera hurbiltzean, esparru teoriko-kontzeptual hutsa gainditu, eta bide eman behar zaie ezagutzen den horren emozio-eta ospatze-erlazioaren forma eta adierazpideei (Kusch, 2000). Hezkuntza emantzipatzaileak arrazoiaren nagusitasuna gainditu behar du, eta errealitatea atzemateko ditugun emoziozko eta afektuzko alderdiak barneratu behar ditu, hau da, arrazionalistak izan beharrean erlazionalak diren arrazionaltasun-forma ez-arrazionalisten alde egin behar du (Estermann, 2006).

Erreferentzia bibliografikoak

Argibay, Miguel eta Celorio, Gema (2005): *La educación para el desarrollo*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Escobar, Arturo (2016): *Sentipensar con la tierra. Nuevas lecturas sobre desarrollo, territorio y diferencia*. Medellín, Ediciones UNAULA.

_____ (1998): *La invención del Tercer Mundo. Construcción y deconstrucción del desarrollo*. Bogotá, Norma.

Estermann, Josef (2006): *Filosofía Andina. Sabiduría indígena para un mundo nuevo*. La Paz, ISEAT.

González, Antonio (1997): *Estructuras fundamentales de la praxis. Ensayo de una filosofía primera*. Madril, Trotta.

Juliao, Carlos (2014): *Una Pedagogía praxeológica*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios.

Kusch, Rodolfo (2000): *Obras completas, Tomo III*. Rosario, Ross.

López, Luz, eta Orrego, Israel Arturo (2012): *Deconstruyendo la educación para el desarrollo. Una mirada desde América Latina*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios.

Mignolo, Walter (2005): "La razón postcolonial: herencias coloniales y teorías postcoloniales". In: *AdVersus Revista de Semiótica*, II. urtea (4), abendua, 2005.


_____ (2007): *La idea de América Latina. Herida colonial y la opción decolonial*. Bartzelona, Gedisa.

Raíz-AL (2015): "Apuntes sobre 'pensamiento propio'". In: *Revista intervenciones en estudios culturales*. 2015 (1), 35-44. or. Centro de pensamiento latinoamericano Raíz-AL.

Orrego, Israel Arturo (2014): Educación para el Desarrollo en zapatos latinoamericanos: apuestas ético-epistémicas. In: Juliao, Carlos (konp.): *Pedagogía praxeológica y social: Hacia otra educación*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios.

Restrepo, Eduardo (2017): "Imaginar el fin del desarrollo sin las garantías de radicales otredades". In: Gutiérrez, Tatiana eta Andrea Neira. *Convergencias y divergencias: hacia educaciones y desarrollos otros*. Bogotá, Corporación Universitaria Minuto de Dios.





Hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea, feminismo beltzaren epistemologiatik

Patricia Hill Collins-ek utzitako irudia.

Patricia Hill Collins [University of Maryland](#), College Parkeko Soziologia Irakasle Katedraduna eta [University of Cincinnati](#)ko Department of African American Studieseko Charles Phelps Taft Soziologia Irakasle Emerittoa da. Saritutako bere liburuen artean daude *Black Feminist Thought: Knowledge, Consciousness, and the Politics of Empowerment* (1990, 2000), American Sociological Association (ASA) erakundeko Jessie Bernard Saria eta Society for the Study of Social Problems erakundeko C. Wright Mills Saria jaso zituen; eta *Black Sexual Politics: African Americans, Gender, and the New Racism* (2004), 2007an ASAREN Distinguished Publication Saria jaso zuena. Honako lan hauen autore ere bada: *Fighting Words: Black Women and the Search for Justice* (1998); *From Black Power to Hip Hop: Racism, Nationalism, and Feminism* (2005); *Another Kind of Public Education: Race, Schools, the Media, and Democratic Possibilities* (2009); *The Handbook of Race and Ethnic Studies* (2010), John Solomosekin batera editatutakoa; *On Intellectual Activism* (2013); *Intersectionality* (2016), Sirma Bilgerekin batera idatzitakoa Polity Press editorialaren "Key Concepts" sailaren baitan; eta *Race, Class, and Gender: Intersections and Inequalities* Margaret Andersenekin batera idatzitako antologiaren 10. edizioa, 200 unibertsitate ikasgeletan baino gehiagotan erabiltzen dena. Bere azken liburua, *Not Just Ideas: Intersectionality as Critical Social Theory*, Duke University Press argitaletxearekin kontratupean dago. Collins irakasleak hainbat erakundetan irakatsi du, aldizkari profesioaletan editorial postuak izan ditu, AEBetan eta nazioartean zabal aritu da irakaskuntzan, hainbat komunitate-erakunderentzako kontsultore lanak egin ditu eta erakunde profesioaletan ere jardun du, berriki 2015eko National Book Award sarian fikziozkoak ez diren lanen epaimahaikide bezala. 2008an ASAREN 100. presidente izendatu zuten, erakundearen 104 urteko historian postu hau hartu duen lehen emakume afrikar amerikarra izanik. 2017an ASAREN William E. B. Du Bois Distinguished Scholarship Saria jaso zuen.

Jone Martínez-Palacios, feminista, ikertzailea, Zientzia Politikoen eta Administrazioaren arloko irakaslea [Euskal Herriko Unibertsitatean \(UPV/EHU\)](#), eta Zientzia Politikoen doktorea. Ikertzaile-ibilbidea Bartzelonan hasi zuen, filosofia ekofeminista ezagutu zuenean. Espezializatu egin da Politika Konparatuan (UPV/EHU, 2007-2009), Demokrazia Parte-hartzailearen eta Komunitate-garapenaren Teorietan (UPV/EHU, 2007-2008), Berdintasunerako Politiketean (2009-2010, Universitat Jaume I) eta Desberdintasun Sexualaren Filosofian (2010-2011, Universitat de Barcelona). Era berean, ikertzaile-ibilbidea hainbat lekutan gauzatu du: Sciences Po Bordeaux, CSU-Université de Paris 8, CECA Roma eta Institute of Women's Studies University of Ottawa (Kanada). Gaur egun, [Parte Hartuz](#) ikerketa-taldeko kidea da; bertan, teoria feministari eta demokratizazioari buruzko lanak egiten ditu. Liburu honetan jorratutako gaiari buruz, hauek dira bere azken lanak: "¿Le importa el sexo a la democracia participativa?" (*Revista de Estudios Políticos*, 168, 2015, 189-90 or.); "Equality and diversity in democracy. How can we democratize inclusively?" (*Equality, Diversity and Inclusion: An International Journal*, 35, 2016, 350-63 or.); "Inclusive democratization: normative proposals and political practices" (*Local Government Studies*, 43/4, 2017, 577-97 or.); "Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad" (*Investigaciones Feministas*, 8, 2017, 53- 71 or.) eta *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias* (Coord. Icaria, 2017).

Jone. Prozesu pedagogikoetara hurbiltzeko ikuspegi kritikoa erabiltzen badugu, esan dezakegu hezkuntza askatzaileak, batetik, dimentsio politikoa eta, bestetik, gizarte-aldaketako estrategiak txertatzen dituela bere helburuetan. Zehazkiago, Espainiako Estatuaren esparruan, ohikoa da praxi pedagogiko kritikoa Paulo Freireren (1921-1997) herri-pedagogiaren ekarpenak berreskuratzea. Guretzat, hezkuntza-prozesuak pertsonari ahalmena ematen die beren bizitzetan izandako zapalkuntza motak ezagutzeko, kontzientzia kritikoa garatzeko, eta erresistentzia egiten eta beren emantzipaziorako (banakoa eta, batez ere, taldekoa) ekintzak hasten dituzten subjektu politiko gisa konformatzeko. Prozesu pedagogikoetara modu horretan hurbiltzeak aukera ematen digu hausnarketa bat egiteko: proiektu politiko askatzaile orok hezkuntza-osagai bat du. Patricia, Pentsamendu Feminista Beltzaren zer ezaugarri pedagogiko azpimarratuko zenituzke?

Patricia. Esan daiteke Freireren ikuspegiak pedagogiaren inguruan duen indarguneetako bat zera dela, egunerokotasunean bizitzen dituzten errealitateak «irakurtzen» jakitera bideratutako alfabetatze mota bat garatzera bultzatzen duela jendea. «Irakurketaren» ideia-interpretazio hori azpimarratzeak esku artean irakurketaren ulermen zabala erabiltzea esan nahi du. Irakurketa horrek agerian jartzen du esanahiak ez daudela testuan, harekin ditugun elkarrekinzeta baizik. Testuak

ez du ematen diogun esanahia kontrolatzen, guk kontrolatzen dugu, dela gobernuko dekretu bat dela musika-bideo bat.

Proiektu politiko ororentzat auzia da identifikatzea zein diren jendearentzat garrantzitsu eta interesgarri diren arazoei buruz zuzenean hitz egiten duten testuak. Hala, irakurtzen duenari testua zinezkoa, egiazkoa edo hurbilekoa egiten bazaio, oso baliagarria bihurtzen da hezkuntza kritikorako, konponbide politikoak bilatzeko tresnak ematen baitira horren bidez.

Feminismo Beltzaren pedagogiari dagokionez, uste dut *Black Feminist Thought* eta *Black Sexual*



Jone Martínez-Palacios-ek utzitako irudia.

*Politics*¹ lanetan aipatzen ditudan irudiek, hots, feminitate beltzari buruzko irudi menderatzaileek, hezkuntza kritikoko proiektu batean lan egiteko sarbide oso aberasgarria ematen dietela emakume beltzei. Irudi horiek alfabetatze politikoa gauzatzeko testua izan daitezke, ez soilik emakume beltzentzat –zeinak irudi horien edukian baitaude–, baita beren buruak horietan islatuta ikusi eta irudi horiek eta antzeko beste batzuk nola eragin diezaieketen pentsa dezaketen beste pertsona batzuentzat ere. Kontrolatutako irudiak (*controlling images*) botere-harremanen eta ideien arteko elkarguneetan daude.

Illo horretan, horiek erabiliz irakurketa kritikoa gauzatzek hainbat indargune praktiko ditu. Batetik, irudi mediatikoz beteta dagoen kontsumo-gizarte honetan, begi-bistakoak dira eta erraz ikusten dira. Edozein tokitan aurki ditzakegu –musika-bideo edo bideoklipetan, dendan gertatzen diren elkartzeko sozialetan, curriculumean bertan–, begi-bistan ezkatututa. Oinarria jartzen dute arrazari, generoari, sexualitateari, gizarte-mailari, nazionalitateari eta, bereziki, neskato beltzen kasuan, adinari buruz hitz egiteko. Ez da gauza bera irudi horiek badaudela jakitea, edo kritikoki aztertzea arrazari, generoari, gizarte-mailari, sexualitateari eta jende askok egozten dien adinari buruzko edukia. Bestetik, irudi menderatzaileekin lan egiteak abantaila teoriko eta politiko nabarmenak ere baditu. *Kontrolatzeko* erabiltzen dira, ez dira irudikapen zintzoak; aitzitik, botereak nola jarduten eta irauten duen agerian jartzen duten tokiak dira. Jendeak irudikapen horien edukari buruz borrokatzen duenean, ez da soilik ideiekin borrokatzen ari, irudi horiek gaur egungo gizarte-harremanetan duten esanahiagatik baizik.

Irudi menderatzaileek nola funtzionatzen duten ulertzeari esker, zapalkuntzarekiko erantzun kritikoa eta sormenezkoak gara ditzakegu, banaka nahiz taldean. Hainbat gairi buruz elkarrizketatzeko eskemak ematen dituzte: irudikapen horiek denboran nola aldatzen diren; hainbat gizarte-maila, adin eta abarreko emakumei nola eragiten dieten; nola eraikitzen diren beste pertsonen emakume beltzei buruz dituzten pertzepzioak. Halaber, irudi horiek aukera ematen dute emakumeek banaka hausnar dezaten, eta kontura daitezen norbanako

«Ez dago erresistentziarako errezeta-libururik. Era berean, ez dago erresistentziarako toki pribilegiaturik»

bakoitzak botere-harremanekiko bere erantzun eta ekintzak negoziatu behar dituela; *controllin images* direlakoek, berriz, talde oso bati eragiten dieten gaiak jorratzen dituzte. Ez dago erresistentziarako errezeta-libururik. Era berean, ez dago erresistentziarako toki pribilegiaturik. Aitzitik, erresistentzia pertsona bakoitzak gizartean duen posizioa irakurtzen trebatzean datza, bai eta horrekin eta hortik zer egin erabakitzean ere.

Jone. «Zinezkoa dirudien» testu baten balio eraldatzaileari buruz aipatzen duzun ideia horrek indar izugarria du Espainiakoaren moduko testuinguruetan, hots, politika «egiazkoari» eta «egiarri» buruzko diskurtso politikoz beteta dagoenetan. Badirudi jende guztiak egia esan nahi duela, gezurrezkotzat jotzen duenaren aurrean –gezur hori, egiaz, lehengoa (zaharra, atzeratua, nahiz eta beraiek sortua izan) edo antagonikoa (zilegitasuna kendu behar zaion oposizioa) besterik ez da–. Uste dut interesgarria litzatekeela jakitea, pertsonen kontakizun biografikoen bidez, zein testuk, lanek edo arte-ekoizpenek izan duten historian zehar ahalmen euristiko hori, zeinak eragiten duen, adibidez, pertsonen zera esatea: «*eureka! Horixe da esan nahi nuena, edo halako testuinguruan bizi izan dudana*». Garrantzitsua litzateke ezagutzea haien bizitzaren zein unetan eta zer zentzutan izan zen askatzailea ideia hori, eta zein unetan iruditu zitzaion egia zela. Hori jakinda, gehiago jakin ahalko dugu eragiten dion menderakuntza-matrizeari eta literaturaren eta artearen bidez existitzen diren –edo horietan irudikatuta dauden– erresistentzia-moduei buruz. Nik ulertzen dudanez, erresistentziaren ideia hori zure proposamenguztien erdigunea da. Eraldaketara eta gizarte-justiziara zuzendutako erresistentzia. Badakigu gizartea eraldatzeko askotariko subjektu kritikoa artikulatu behar direla. Abiapuntutzat hartzen badugu gure utopiak hondatu dituzten praktika kolonizatzailez eta desadostasun-logikaz betetako ibilbidetik gatozela, zer egin dezakegu egitura eta dinamika horietatik askatzeko, eta gizarte-ezagutza askatzaile bat garatzen lagunduko duen elkarrizketa horizontalaren bidez hitz egiten ikasteko?

1 *Black Feminist Thought: Knowledge, Consciousness, and the Politics of Empowerment*. New York: Routledge, 1990; *Black Sexual Politics: African Americans, Gender, and the New Racism*. New York: Routledge, 2004.

Patricia. Esaten duzun horretan, aitzat hartzen duzu zein zaila den boterea bere horretan hautematea botere-harremanetan beste modu batean kokatzen diren pertsonentzat –batzuek pribilegioak dituzte, Europako herrialdeen praktika kolonizatzaileei esker; gehiengoak, aldiz, ez ditu-. Arlo hegemonikoak, funtzionatzeko, botere-jardunbideen arrastoak ezabatzen ditu, bere erakunde-esparruaren bidez (adibidez, egiturazko, diziplinazko, kulturako eta pertsonarteko esparruak²). Gainera, jende askok ez du onartzen gizarte-desberdinkerriko egitura bidegabeetan duen gizarte-mailak bere identitatea, besteekiko elkarrekintzak, egunerokotasunean jasotzen duen trataera eta bere bizitza inguratzen duten aukera-egiturak moldatzen dituela.

Etentagarria da aintzat ez hartzea botere-harreman bidegabeen mugak eta herentziak onartzeak suposatzen duen lan desatsegina, eta zuzenean gu geu izan gaitezkeen eta askatasunez hitz egin dezakegun «elkarrizketa horizontaleko» guneetan pentsatzea. Niretzat, hori utopia eskuraezina da, hemen eta orain. Erakargarria gerta daiteke zuzenean lan politiko eta intelektual zail horri ekitea, baina kontuan izan behar da gutako inork ezin dituela gainetik kendu jaiotzatik bizitako eta trebatutako egiturak eta dinamikak. Utopia (utopia hori) lortzen saiatzea etsipenerako errezeta bikaina da.

Baina, orduan, zer egin dezakegu? Konturatu naiz justizia soziala, berdintasuna eta legitimitatearen

2 Itzultzailearen oharra (I. O.): Patricia Hill Collinsek bere lan askotan «botere-esparruen» (*domains-of-power framework*) lan-arloak azaltzen ditu. «Menderakuntzaren matrizearekin» (*matrix of domination*) eta komunitatearen ideiarekin batera, *domains-of-power framework* delakoak tresna-kaxa bat osatzen du, zeina pentsalariak gure eskura jartzen duen «boterearekiko iheskorak diren interpretazio-esparruak saihesteko». Erantzun horretan, egileak lau botere-esparru aipatzen ditu. Egiturazkoa, gizarte-erakundeak antolatzen eta erregulatzen dituzten politika publikoei buruzkoa. Diziplinazkoa, gizarte-hierarkia mantentzeko edo horri aurre egiteko gizarteetan erabiltzen diren arauekin lotutakoa. Kulturakoa, gizarte-desberdinkerriak justifikatzen dituzten ideia hegemonikoak eta harreman bidegabe horiek kritikatzeko dituzten ideia kontra-hegemonikoak sortzen dituzten erakunde eta gizarte-praktikei buruzkoa. Eta esperientziakoa edo pertsonartekoa, komunitatearen testuinguruan gertatzen diren gizarteko bizipen-dinamikak adierazten dituen.

«Taldeen barruko elkarrizketek duten konplexutasunaren zentzu politikoa mugetatik kanpoko harreman politikoak bezain politikoa da»

moduko printzipio etiko zabaletan aritzeak helburu horiek lortzeko bidean aurrera egiten lagundu didala. Taldeen barruko elkarrizketek duten konplexutasunaren zentzu politikoa mugetatik kanpoko harreman politikoak bezain politikoa da.

Jone. Azpimarratzen duzu utopiak eta etsipenak lotura dutela, lehenengoa lortzearen ezintasunagatik; ideia hori beste toki batzuetan erabilgarria izan da zenbait baldintza argitzeko, zeinen bidez mundua toki justuagoa eta solidarioagoa bihurtzera bideratutako ekintzak pentsa ditzakegun. Uste dut antzeko zerbaiti buruz ari zinela 2016ko urrian *Race Matters*³ programan egin zenuen elkarrizketan, eta duela gutxi *Investigaciones Feministas*⁴ aldizkarian argitaratutako testu batean; izan ere, horietan azpimarratu zenuenez, justizia sozialaren alde egiteko interesgarria da «desiragarria, posiblea, gertagarria eta praktikoa denaren arteko sormenezko tentsioan mugitzea». Uste dut tentsio horretan ongi moldatzeko nolabaiteko baretasuna izan behar dela, eta horrek talka egiten du menderakuntza indargabetzeko justizia sozialeko ideiekin esperimentatu nahian ari garenean ditugun «egoera urduriekin»⁵. Oso erakargarriak dira gure kezken jatorri politikoa gogoratzeko eta gure eguneroko lana ez biguntzeko justizia sozialeko, berdintasuneko eta bidezkoatasuneko esparruak (eta helburuak) ez ahazteari buruz egiten dituzun proposamenak. Hemen ezin dugu

3 Elkarrizketaren audioa honako webgune honetan dago eskuragarri: <http://kgou.org/post/doctor-patricia-hill-collins-works-expand-platform-black-womens-voices> (2017ko abenduaren 5ean kontsultatua).

4 Patricia Hill Collins (2017): "The Difference That Power Makes: Intersectionality and Participatory Democracy", in *Revista de Investigaciones Feministas* 8 (1), 19.-39. or. Artikulua honako webgune honetan dago eskuragarri: <https://revistas.ucm.es/index.php/INFE/article/view/54888/51188> (2017ko abenduaren 5ean kontsultatua).

5 Tsitsi Dangarembga egilearen *Condiciones nerviosas* (2010, Icaria) lanari erreferentzia.

« Emakume beltz batzuek Afrikako iraganean bilatzen dituzte epistemologia eta mundu-ikuskeraren alternatiboak. Munduari buruz pentsatzeko eta bertan egoteko modu tradizionaletan ereduak eta gidak bilatzen dituzte, betiere, iragana errepikatzea ezinezkoa dela onartuz »

ahaztu ideiak eta ezagutza berez daudela lotuta boterearekin, eta menderakuntzan oinarritutako gizarte-egitura mantendu nahi duenak euskarri ditugun esparru eta helburu horiek «bahitu» eta bere xedeetarako erabil ditzakeela. Oso lagungarri litzaiguke jakitea zer estrategia zabaldu dituzten emakume akademiko beltzek intelektual adituetatik babesteko eta beren arazo eta konponbideen definizioan emakume afroamerikarren esperientzia aintzat hartzeko. Epistemologia feminista beltzeko zein elementu dira ezinbestekoak ezagutza menderatzailea deseraikitzeo eta eztabaidatzeko?

Patricia. Uste dut elementu nagusia, garrantzitsua, epistemologia alternatiboak badaudela konturatzea dela. Sarritan, erresistentziak epistemologia menderatzailearen onarpenen esparruan ematen dira. Adibidez, errespetagarri izateko talde menderatzaileek balioesten dutena metatu behar dugula dioen ideia. Arazoa da desiragarria denaren estandarrak eta neurria, bere horretan, diskriminatzaileak direla; nire kide Jose Medina filosofoak «zapalkuntza epistemiko»⁶ deitzen dio ezaugarri horri. Bizitza ulertzeko eta balioesteko beste modu batzuk daudela onartzea oso askatzailea da. Jendea konturatzen denean hegemonikotzat jotzen dena ez dela nahitaez halakoa, beste estrategia batzuetan nahasten da. Adibidez, emakume beltz batzuek Afrikako iraganean bilatzen dituzte epistemologia eta mundu-ikuskeraren alternatiboak. Munduari buruz pentsatzeko eta bertan egoteko modu tradizionaletan ereduak eta gidak bilatzen

dituzte, betiere, iragana errepikatzea ezinezkoa dela onartuz. Tradizioak are erabilgarriagoak dira orainaren alternatibei buruz hausnartzeko eta etorkizun berriei buruz pentsatzeko erabiltzen ditugunean. Gaur egun, iraganeko emakume beltzek inoiz igarri gabeko erronkak ditugu aurrez aurre. Beraz, kontua da iragana berriz irudikatzea, halako moldez non etorkizunean gidatuko gaituen.

Testuinguru horretan, Mendebaldeko zientziaren arauak (epistemologia menderatzailea) emakume idazle beltzak hainbeste mugatu ez dituztenez, askatasun handiagoa izan dute etorkizun berriak irudikatzean iragana erabiltzeko. Zientzia-fikzioak eta fantasiak aukera ematen dute aurrera egiteko epistemologia menderatzaileetatik kanpoko mundu berriak sortzeko bide horretan. Hemen, zehazki, Octavia Butler afroamerikar idazlearen *La parábola del sembrador*⁷ eta beste lan batzuek duten gero eta ospe handiagoan ari naiz pentsatzen. Egileak iragana bisitatzen du, eta berriro irudikatzen du, betiere, kontuan hartuz etorkizunerako ematen dituen aukerak. Butlerrek ez ditu orainean egin behar denari buruzko errezetak ematen. Hori guk egin behar dugu. Esan daiteke haren fikzioa transzenditu nahi duen orainaren ageriko kritika dela.

Jone. Zientzia-fikzioan ikusten duzun gaitasun hori arnasbidea da niretzat. Arlo akademikoan, existitzeko, kapital kultural metaketarako lasterketa kezkarri batean parte hartu behar da, non ezagutza eta jakintza mota batzuk sistematikoki debalutaten diren, adibidez, biografiak eta ahozko diskurtsoak. Hainbat emakume afrikarren, afroamerikarren eta latinoamerikarren biografiak eta diskurtsoak irakurtzean, orainaldiko arazoei ekiteko halako babesa sentitu izan dut, zuk aipatzen dituzunen moduko baldintzetan. Haien testuetan, nire ustez, zure pentsamoldean garrantzi nagusia duten bi ideia aipatzen dira: komunitatea eta elkartasuna. Sarritan, elkartasuneko komunitateekin batera, lasaitasun faltari buruzko kezka, «urduritasun-egoera», eta denboraren, hezkuntzaren eta diruaren beharra daude, bai eta beste baldintza material eta sinboliko batzuk ere, esperimendatzeko eta alternatibak sortzeko eskubidea erabili ahal izateko. Kontakizun horietan, gainera, niretzat oso garrantzitsua izan

6 I. O.: *The Epistemology of Resistance: Gender and Racial Oppression, Epistemic Injustice, and Resistant Imaginations* (Oxford, Oxford University Press, 2012). Egilearen hainbat lan gaztelaniaz daude; besteak beste: "Memoria, Objetividad, y Justicia: Hacia una Epistemología de la Resistencia", *La Balsa de la Medusa* 4 (2011), 47.-74. or.

7 I. O.: Octavia E. Butlerren lanen artean honako hauek daude: *Hijo de la sangre*, *Xenogénesis: Amanecer*, *Ritos de madurez* eta *Imago*; *La Parábola del Sembrador* eta *La Parábola de los Talentos*.



Black sexual politics liburuaren azala.

da emakume horiek zapalkuntza bizitzeko eta erresistentzia egiteko zuten konplexutasuna ulertzea. Hain zuzen ere, konplexutasun horri buruz ari da interseksionalitatea. Gero eta interes handiagoa dago interseksionalitatea azterketa-tresna modura erabiltzeko; izan ere, Sirma Bilgek eta zuk *Intersectionality*⁸ lanean azaltzen duzuen moduan, erreflexiboa da bidegabekeria injustizia sozialarekiko, botere-harremanekiko, harremanen dimentsio sozialarekiko, gizarte-testuinguruarekiko eta konplexutasunarekiko. Sakonago azalduko al zenuke zer interes duen interpretazio-esparru horrek kontzientziazio-prozesuak sustatu nahi dituen eta boterea etengabe berrikusi eta zalantzan jarri behar duen hezkuntzarako?

Patricia. Nik, pertsonalki, bereizi egiten ditut *hezkuntza askatzailea*, zeina epe luzeko borroka batekiko konpromisoa den, eta *hezkuntza kritikoa*, zeina errazagoa den noizean behin gertatzea, denboran mugatuta, toki berezi batekin eta gai zehatzekin lotuta. Hezkuntza kritikoa egungo inertzia hierarkikoei egiten zaien erantzun kritikoa da. Definizioz, indarreko errealitateekiko erreakzioa da. Aitzitik, hezkuntza askatzaileak gerta daitekeena irudikatzen du. Hezkuntza askatzaileako beharrezkoa da hezkuntza kritikoa, baina gaur egun existitzen ez diren alternatibak sortzen ditu.

“ Hezkuntza kritikoa egungo inertzia hierarkikoei egiten zaien erantzun kritikoa da. Definizioz, indarreko errealitateekiko erreakzioa da. Aitzitik, hezkuntza askatzaileak gerta daitekeena irudikatzen du ”

Interseksionalitateak bientzako interpretazio- edo lan-esparrua ematen du, praxi eta ikerketa-baliabide kritiko modura. Hezkuntza askatzaileak helburu etikoak lortu nahi ditu, esaterako, askatasuna, justizia soziala eta berdintasuna; bere jardunbideak ebaluatzean interseksionalitatean inspiratzen da, hezigarri modura; gaur egun norbera zer posizioan dagoen jakiteko ebaluazio-tresna modura; eta etorkizunerantz mugitzeko nabigazio-tresna modura. Hezkuntza kritikoa oinarritutako proiektuak interseksionalitatean inspiratu daitezke arazo sozial zehatzei buruz, hots, pertsona-talde jakin baten arazo eta kezkei buruz hitz egiteko.

Oinarrian, hezkuntza askatzaileak bere gain hartzen ditu hainbat hezkuntza-proiektu erabakigarri, zeinak forma eta helburua alda dezaketen denboran zehar. Denborarekin, hainbat proiektu sakondu dute hezkuntza askatzailearen ibilbidean. Bereizketa horri esker, behar beste toki lortzen da epe luzeko proiektu askatzaileak proiektu kolonialetan mantendutako ezagutza hegemonikoarekiko erantzun modura ikusteko. Hezkuntza kritikoa Mendebaldeko ezagutza deskolonizatzeke eta hezkuntza askatzailearentz mugitzeko tresna da.

Ez dugu ahaztu behar erronka bikoitza dela: (1) hezkuntza kritikoa lortzeko proiektuak garatzeko, beharrezkoa da interseksionalitatea erabiltzen duten pertsonen beren lana partekatzea eta antzeko lanetan dabiltzan beste pertsonengandik ikastea; (2) proiektu horietako edozein besteak baino hobea balitz bezala goratzeko (neurri bakarreko kategoriara) tentazioa saihestu behar dugu, eta ez dugu saiatu behar gainerako aukerak haren parametroetan sartzen.

Jone. Aipatutako kontu horietako asko *Another Kind of Public Education*⁹ lanean azaltzen dituzu.

8 Collins, Patricia Hill eta Sirma Bilge (2016) *Intersectionality*. Cambridge, EB: Polity.

9 Collins, Patricia Hill (2009): *Another Kind of Public Education: Race, Schools, the Media and Democratic Possibilities*. Boston: Beacon Press.

« Eremu publikoa *online* formatura pasatzeak ahotsa eman die zapaldutako pertsoneri »

Lan horretan, gonbita egiten diguzu erresistentzia azterketakritikobaten bidez martxan jartzean pentsa dezagun; azterketa hori egiturazko, kulturako, diziplinazko eta pertsonarteko botere-arloetan bakoitzak duen posizioari buruzko hausnarketa-ariketa batekin hasten da. Afroamerikar emakume gazteen esperientziatik abiatuta argitzen duzu, eta komunikabideek hezkuntza-prozesuetan sortzen dituzten erronkak eta aukerak azaltzen dituzu. Hamarkada bat geroago, zer erronka identifikatzen dituzu injustiziei erresistentziaz aurre egiten dien pentsamendu kritikoarekin konprometitutako hezkuntza bat abiarazteko?

Patricia. Gaur egungo hedabideek sortzen dituzten erronkei dagokien ez, liburuan adierazitako gauza bera pentsatzen dut, oraindik ere. 2016. urtera arte, argi eta garbi ikusten nuen aukera bat zegoela hedabideetan (adibidez, Interneten erabilera eta hedabide mota berriak), tradizioz baztertutako pertsonen beren artean komunikazio-sareak sortzeko aukera bat. Egiaz, hedabideen kontrola goitik beherako ikuspegi batetik indarrez sartu den sare baten maneira pasatu da, eta, ondorioz, eremu publikoa, hein batean, demokratizatu egin da. Baina orain ez nago horretaz hain ziur. Ikaratu egiten naute ultra nazionalismoaren aldeko mugimenduek, eta gorrotoaren diskurtso biralarekin duten loturak. Gezurrezko berriek sofistrazioz eragiten dute iritzi publikoan, eta hori edozein propaganda zaharkitu baino askoz ere kaltegarriagoa da. Twitter eta Facebook adibide onak dira ikusteko nola sare sozial mota berri horiek parte-hartzean oinarritutako demokraziaren promesa mantentzen eta apaltzen duten, aldi berean.


Eremu publikoa *online* formatura pasatzeak ahotsa eman die zapaldutako pertsoneri. Gainera, ideien heterogeneotasuna handitu da ez edukien artean, baina haiek ez dute botere-harremanetan duten posizioa ulertzen lagunduko dien hezkuntza kritikorik, ironikoki. Pertsonalki, gai horri buruzko ideia solte gehiago nituen, ideia arrazoituak baino. Baina, zorionez, aukera izan nuen lehen mailako hezkuntza izateko, zeinak zenbait hamarkadaz irakurketa kritikoko gaitasunak praktikan jartzeko trebatu nauen. Alfabetatze mediatikoaren aldeko

argudioak mantentzen ditut, baina egia da inoiz ez nuela imajinatu nolako boterea izango zuten horrelako hedabideek.

Jone. Amaitzeko, zure ustez, zein esperientzian oinarritu gaitzake inspiratzeko eta ikasteko?

Patricia. Duela urte gutxi adorerik gabeko garai bat izan nuen. Besterik gabe, ez nuen ikusten zer interes izan zezakeen nire lanak. Borrokaren lehen lerroan zaudenean, zaila da ikustea zein dagoen zure atzean. Bazirudien gizarte-arazoak eta bidegabekeriak lantzeko ezintasuna bizitza baino handiagoa zela, eta, jakina, ni baino handiagoa. Baina, orduan, kide gazteen belaunaldi oso bat ezagutu nuen; horietako asko graduondoko ikasketak amaitzen ari ziren, edo amaitu berri zituzten. Orain irakasle laguntzaileak dira, eta esperientzia praktikoa dute irakaskuntzan. Nire kide gazteetako batzuek akademiatik kanpo lan egiten dute, artista, film-zuzendari, musikari eta poeta modura. Nigandik oso desberdinak izan arren, gauza askotan gatoz bat; haien lanek nirearen mami bera dutela ikusten dut.

Kide horiek asko inspiratzen naute, eta haiengandik asko ikasten ari naiz. Nik idatzitakoak izan duen balioa erakutsi didate; izan ere, denbora asko eman dut horretan. Eta halaxe hartzen du zentzua irakasteak, zure ideiek garrantzia dutela jakiteak. Hezkuntza askatzailea ez dago programatuta. Suarekin jolastearen performatibitatean dago, baina,



Black feminist thought liburuaren azala.

aldi berean, gazteei hazteko tokia uzten die. Inoiz ez dakizu ongi ari ote zaren, egiten ari zaren arte; gainera, inoiz ez duzu jakingo zer eragin izan duen zure lan intelektualak eta politikoak.

Galdera honi eman nion lehen erantzunean pertsona horien izenak esaten hasi nintzen. Baina segituan konturatu nintzen gaur egun inspiratzen nauten kide gazteen izen gehiegi daudela, eta ezin nituela guztiak jarri inor ahaztu gabe. Agian, hortxe dago auziaren muina. Jone, zu nire zerrendan zaude. Aurrez aurre topatu ez arren, zure ideien argitasuna eta zure asmoen zintzotasuna agerian geratu dira gure gutunetan. Azken urteotan, bidaiatzeko eta kide gazte asko ezagutzeko aukera izan dut, sarritan, ustekabeko tokietan. Zeinen opari ederra den haiek hor egotea! Espero dut elkarrekin topa daitezen.

Hurrengo urteetan nire inspirazioa zirriborratzen jarraitzeko asmoa dut, nire kide gazteenen bidez, haiek baitute hezkuntza askatzailearen ikuspegia. Desiratzen nago haien liburuak eta artikulak irakurtzeko, haien filmak ikusteko, haien obrak bisitatzeko, haien musika eta diskurtsoak entzuteko, eta haien lanetik esanahiak marrazteko.

“ Hurrengo urteetan nire inspirazioa zirriborratzen jarraitzeko asmoa dut, nire kide gazteenen bidez, haiek baitute hezkuntza askatzailearen ikuspegia ”



* 2017ko uztailetik urrira bitartean idatziz izandako elkarrizketa. Ingelesetik gaztelaniara (jatorrizko bertsioa) Jone Martínez-Palaciossek itzuli du, hauen laguntzarekin (alfabetozko hurrenkeran): Delicia Aguado Peláez, Patricia Martínez García eta Vanesa Ripio Rodríguez.



Nortzuk gara • Florestan Fernandes Eskola Nazionala
Hemen aurkituko gaituzue • www.amigosenff.org.br

Florestan Fernandes Eskola Nazionala: Langileriaren Eskola

Gizarte-mugimenduak askotariko arazoei konponbidea bilatzeko asmoz sortzen dira, janari edo etxebizitza gabeziatik hasi eta gizarte-talde batzuen eskubide zibil edo politikoen aitortzaraino. Gizarte-mugimenduek gehiago irauten dute borrokarako duten ahalmena berritzeko, mantentzeko eta handitzeko aukera ematen duten hezkuntza prozesuak garatzen dituztenean. Mugimendu horien formakuntza metodoak beren helburuekiko eta borroka moldeekiko koherenteak izatea funtsezkoa da beren planteamenduek aurrera egin dezaten.

Testu honetan, Florestan Fernandes Eskola Nazionalaren (ENFF) esperientziaren, helburuen, funtsezko metodoen eta harremanen berri emango dugu, laburtuta, Brasilgo Lurrik Gabeko Laborarien Mugimenduz (MST) harago.

MSTk sortutako proposamena eta formakuntza programa da ENFF. 1987an sortu zen, erreferentziazko espazio fisiko bat zuela Santa Catarina Estatuko Caçador udalerrian. 1997an nazioarteko kanpaina bat abiatu zen Guararema (São Paulo) eskola eraikitzeko; espazio hori MSTko 1.200 pertsona ingururen borondatezko lanaren bidez eraiki, eta 2005ean inauguratu zen.

ENFFk Mugimenduaren formakuntza esperientziak biltzeko, langileriako beste erakunde batzuei dei egiteko eta klase borrokaren kode genetikoki eusteko ardura du. 1997ko Topaketan sortutako dokumentuan –han hautatu zen Florestan Fernandes izena eskolarentzat (Pizetta, 2009)– ohartarazten da formakuntzak elementu hauek hartu behar dituela, besteak beste, barruan:

- Errealitatea ulertzen eta interpretatzen ikasteko ikasketa.
- Errealitatea eraldatzeko borrokak.
- Nahi duguna eraikitzeko lana.
- Amesten duguna izateko bizikidetzak.

Era berean, honakoa ere adierazten da:

"A Escola Nacional não é somente seu espaço geográfico, tampouco a estrutura física-prédio. A ENFF é um conjunto de ações políticas e formativas/pedagógicas, que se desenvolvem no conjunto das atividades organizadas e realizadas pelo Movimento, independentemente do local e momento da sua realização." (ENFF, 2013).

ENFFk babestuta antolatzen diren ikastaro guztiek antzeko formak dituzte egiten diren leku guztietan, orain deskribatuko dugun bezala. Ezagutzaz jabetzeko prozesuaren motor nagusia kolektiboaren eraikuntza eta mugimendua da, metodo batean oinarrituta. Metodoak kolektiboaren sorrera laguntzen du, eta erakunde hezitzaile nagusia kolektiboa mugimenduan da. Horrek esan nahi du ezagutzaz jabetzea eta ezagutza sortzea kolektiboan hainbat jarduera garatuz parte hartzearen ondorioa dela.

Printzipio filosofikoak gizarte-mugimenduetatik eratorriak dira, sakon sustraituta daude herri eta leku bakoitzaren errealitatean. Hezkuntza prozesuaren abiapuntua gizarte-borrokak dira. Hezkuntza prozesu bakoitzerako Kolektibo Politiko Pedagogiko (CPP) bana antolatzen da, prozesu hori dinamizatzeaz arduratzen dena arlo eta fase guztiak politikoki lagunduz. CPP hori osatzen duten pertsonak

hezkuntza prozesuaren ardura duten erakundeei lotutakoak dira, eta lan horretarako gaituta daude. CPPk ikasleei, irakasleei, talde administratiboari eta abarri ematen die laguntza, eta irakasleriaren parte izan daiteke, baina ez derrigorrez.

Irakasle lanetik hezkuntza prozesu bati ekarpena egiten dion pertsona bakoitzak askatasuna du bere metodoak hautatzeko; batzuetan, irakaspentzaldia izaten dira, beste batzuetan ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen dira, eta abar. Hezkuntza prozesuaren oinarria prozesu osoaren antolatze metodoa da, gauza bakoitza nola egiten den eta espazio bakoitza nola antolatzen den aztertzean oinarritua, ez irakasle bakoitzak bere ikastordua lantzeko duen moduan.

Parte-hartzaileak/ikasleak oinarrizko guneetan antolatzen dira; horiek dira integratzioko eta garapeneko espazio nagusia. Gune horiek harreman pertsonalak errazten dituzte, taldekideren bat bakartuta geratzea eragozten dute, eta ikastaroaren dimentsio guztiak sendotzen laguntzen dute. Antolatze modu hori Mugimenduaren intenzionalitate pedagogikoaren parte da.

ENFF/MSTren formakuntza metodoen printzipioek klase borroka eta gizarte-eraldaketa zein giza emantzipazio perspektiba dituzte oinarrian. Nolanahi ere, materialismo historiko eta dialektikoan oinarritzen denez, formakuntza horrek dogma aldaezinetan ez oinarritzeko behar den dinamismoa dauka. Arrakasta frogatuta, metodoa munduko beste leku batzuetan ere aplikatu izan da, batez ere La Vía Campesina laborari elkarten bitartez.

Euskal Herrian, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) laborari sindikatuak eta Hegoa Institutuak "Baserritik Mundura. Gure elikaduraren etorkizuna jokoan" - "Del Caserío al mundo: el futuro de nuestra alimentación en juego" Agroekologiako eta Elikadura Soberaniako unibertsitate hedapeneko ikastaroa jarri dute abian 2016an, ENFFko esperientziaren ekarpen metodologiko eta filosofikoetan inspiratua eta ekarpen horiek jaso, berritu eta euskal errealitatera egokitzen dituen.

Formakuntza eta hezkuntza ez dira aski errealitatea eraldatzeko eta giza emantzipazioaren alde ekiteko. Alabaina, berehalakotasunetik harago jotzen duen formakuntza estrategiarik gabeko borroka soziala itsu gelditzen da zailtasun koitunturalen ondorioz, eta, azkenerako, ahaztu egiten ditu bere helburuak.



Janaina Strozakek utzitako irudia.

Formakuntzak lotura estua izan behar du borroka lokal eta globalekin, zorroztasun zientifikoa eta herri jakintza konektatu behar ditu, kulturak landu eta errespetatu behar ditu, eta tresnak eskura jarri emakume berria eta gizon berria eraikitzeko.

Bibliografia

ENFF (2008): *Caderno de Formação, Escola Nacional Florestan Fernandes*, 1. zk., Guararema.

ENFF (2013): *Proyecto Político Pedagógico*, barne-dokumentua.

Pizetta, Ana Justo (2009): *A construção da Escola Nacional Florestan Fernandes*, Juiz de Fora Unibertsitatea.

Webgunea

MST: <http://www.mst.org.br>

IALAs: <https://ialaguarani.wordpress.com/acerca-de>

Janaina Strozake eta Judite Stronzake

Janaina Strozake ENFFko ikertzailea, *Baserritik Mundura* Koordinazio Pedagogikoko kidea, Hegoa Institutuko doktoregaia eta Capes-Brasilgo bekaduna. janabilbao@gmail.com

Judite Stronzake, ENFFko eta Grande Douradosko Unibertsitate Federaletako irakaslea. jstronzake@gmail.com



Nortzuk gara • Salhaketa
 Hemen aurkituko gaituzue • www.salhaketa.org

Zigorrarekiko alternatibak, gizarte-mugimenduen esperientziatik

Justizia berrezartzailea aplikatzeko moduari buruzko gogoetak: alternatiba edo justizia zigortzailearen osagarri?

Lehenik, "alternatibak" kontzeptua argitu behar dugu. Horretarako, bi adiera guztiz antagoniko kontrajarriko ditugu. Alternatiboa zerbaiten *ordezkapene*ko prozesu bat izan daiteke, ordezkaturako hori ulertzeko aurretik dagoen beste modu bat ahal den gehiena murrizteko edo deuseztatzeke; edo, aitzitik, alternatiboa, adiera debalatu eta perbertso batean, instituzionalizatutakoa, aurretik dagoena, inondik inora ere ordezkatu gabe, osatu, dibertsifikatu eta, azken finean, justifikatu eta sendotzen duena izan daiteke. Hain zuzen ere, justizia berrezartzaileak eta kartzelarekiko alternatiboak diren zigor neurriek, zigorrean eta hezkuntza bezatzailean oinarrituak horiek ere, ez dira izan justizia zigortzailearekiko alternatiba, eta, justizia mendekatzailearen erabilera progresiboki murrizten duten tresnak izatetik urrun, justizia zigortzailearen modu *osagarri* gisa eragiten dute, horrela, zigor sistema errepikatu eta zilegituz.

Justizia berrezartzaile, konpontzaile, bergizarteratzaile eta emantzipatzaileak defendatzen dituen printzipioak baliagarri egiteko, zigor zuzenbidea partikulari eta kontrol formaleko estatu sistemak oro har oinarritzat dituzten zutabe teoriko eta praktikokoak aldatu beharko lirateke. Kontua ez da beste zigor sistema bat posible dela planteatzea, ezpada zigor praktikak gaur egun planteatzen duen zigortze selektiboaren erabilera justizia berrezartzaile batekin bateraezina dela planteatzea. Abiapuntuko printzipiotzat izan behar ditugu zigor arloko esku-hartzearen minimizazioarena eta zigor arloko esku-hartzea zuzenbidearen beste arlo batzuetara bideratzearena (lanekoa, fiskalitatekoa, familiakoa, merkataritzakoa, bideetakoa eta abar), horietan onarpena emanaz gaur egun zigor zuzenbidearen arloan arrakastarik lortu gabe aurre egitea bilatzen ari diren erantzunei. Debate nagusia

da nola gainditu gaur egungo zigor sistema gero eta zapaltzaileagoaren eta gero eta berme gutxiagokoaren erresistentzia, hark bere eraginkortasunik eza aitortzean, eta, areago, delituzko gertaera eta jokabideen erreproduzioan duen konplizitatea.

Hautematen den moduaren alderantzira, justizia berrezartzaile eta bermatzailearen gizarte-zilegitasunak hainbat ikerketa kriminologikoren bermea du, bai eta ikerketa propio batzuen ere. Horrek esan nahi du ez daukagula zigor sistema bat biztanleriak eskatzen duelako, ezpada gaur egungo justizia kriminaleko sistema erreproduzitzea bizibide dutenek biztanleriaren garuna bahitzen dutelako beren klonazio mental kolektiboko dinamiken bidez, eta sinetsarazten digutelako saihetsezina, efikaza eta justua dela. Menderakuntza ekonomiko, politiko eta ideologikoa artikulatzen duten botere horiek nahiko balute, justizia berrezartzailearen erabilera arazorik gabe zabaldu ahal izango litzateke.

Gaur egungo zigortzearekiko alternatiba kontzeptuaren esanahi askotarikoak; zertan egin izan dugu lan gizarte-mugimenduok?

Kartzelak aplikatzen zaien sektoreen bazterketa baldintzak okertzen baldin baditu, eta delinkuentzia konbentzionala sozialki definitzeko zeregina duen egitura sinboliko gisa funtzionatzen baldin badu, eta gainerako delikuentzia motak ezkututzen baldin baditu, herritarrei delitutik babesten duelako sentimendu faltsua txertatuz, alternatibak abian jartzeko tenorea da.

"Alternatibak" hitz anbibalentea bere adiera debalatuaren erabiltzen denean, sarritan kartzelaren existentziarekin bateragarriak eta existentzia horren indartzaileak diren zenbait politika eta programari egiten zaio erreferentzia. Askatasuna kentzearen inguruan artikulatutako zigorra dute oinarri, eta beste



Salhaketak utzitako irudia.

zigor mekanismo batzuek osatzen dituzte. Oso kasu gutxitan dira zigorgabetzera edo zigor esku-hartzea deuseztatzen jotzen duten neurriak, zigor esku-hartzea, delituarekiko erantzun gisa, zigor kontzeptuan edo sarien bidezko sozializazioan oinarritzen ez den beste ekintza mota batez ordezkatuta.

Espainiako legedian, askotariko zigor neurriak ageri dira. Nagusiak isunaren ordainketa eta kartzela zigorra dira, baina badira beste neurri posible batzuk ere, desberdinak edo horien ordezkoak, hala nola, zigorraren baldintzapeko barkamena, etxe barruko arrastatzea, gida-baimena kentzea, barnetegi erregimeneko tratamendu bati men egitea, komunitatearen aldeko lanak, eta abar. Horiek guztiak kartzela zigorraren gehigarri eta osagarritzat jotzen dira.

Badira, horiez gain, Europako eta Ipar Amerikako zenbait herrialdetan duela hamarkada batzuetatik hona funtzionatzen duten beste neurri alternatibo batzuk, baina historikoki egiaztatzen ari da alternatiba deitutako horiek ez direla aplikatzen zaizkien pertsonengan bazterketa eta kriminalizazioa sortzen duten baldintzak eraldatzen dituzten alternatiba errealak, eta gizarte-kontrolako beste forma batzuk direla, kartzela eta para-kartzela egiturak erreproduzitzen dituztenak. Era horretako neurriak dira, adibidez, kartzela zigorrak erregimen irekian betetzea, semi-askatasunean, tratamendu derrigorua eta askatasuna proban, erregimen itxira itzultzeko mehatxupear, bai eta kartzela zigorra beste zigor batzuegatik aldatzea ere, kartzela zigorraren mehatxupear.

Horietako bakoitzak islatzen du oso ekarpen desberdina egiten dutela gizarte-mugimenduek, gobernu erakundeek, para-gobernu erakundeek eta gobernu kanpoko erakundeek; azken horiek zigor- eta kartzela-administrazioari zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresen gisa funtzionatzen dute. Batzuetan justizia zigortzailearen aplikazioaren irismena osatuz eta zabalduz, beste batzuetan hura "gizatiartzen" saiatuz.

Ohiz kanpo, gizarte-ekintzako eta politika kolektiboko beste prozesu batzuetan, zigorra eta giltzapetzea ordezkatzen ditugu, zigorgabetze esperientziak garatuz edo delitua prebenitzeko edo haren aurrean erreakzionatzeko bestelako neurri ez zigortzaileak bilatuz, pertsona kriminalizatuaren hezkuntza eta gizarteratzea emantzipatzailea eta askatzailea, eta ez bezatzailea, den eredu bati erantzuten dioten neurriak. Gure abiapuntuko ideia da osasuna eta autonomia baldin badute, eta gizarte-politiken arreta jasotzen baldin badute, pertsonak ez direla kartzelara itzultzen. Kontuan hartu behar da kartzelatutako pertsonen %90 pobreak direla, espetxeetan ustelduta amaitzen duten gazteak, pertsona atzerritarrak, sustrairik gabekoak, mota jakin batzuetako disidenteak, gutxiengo etnikoetako kideak edo drogen mendekoak. Hori da sarea osatuz lanean ari garen zenbait elkarteren lan perspektiba eta esperientzia, eta, bereziki, Salhaketa pertsona atxilotu eta kartzelatuen eta haien senideen laguntzarako elkartearena.

Planteamendu horretatik eta praktika horretatik, azkeneko lau hamarkadetan gure zeregina izan da, batetik, biktimario gisa definitzen direnak biktimizatu besterik egiten ez duen polizia-, zigor- eta kartzela-sistemaren indarkeria juridikoki eta publikoki salatzea, eta, bestetik, kartzelatik irtendakoei laguntza eta babes psiko-soziala ematea, hainbat zerbitzuren bidez, hala nola, auto-sostengu taldeak, harrera etxeak, aholkularitza eta laguntza, eta abar. Esperientzia horretatik, ondoriozta dezakegu pertsonak, kartzelatik irtendakoan, bizitzeko baldintza material duin eta osasuntsuak bermatzen dituzten proposamen gizarteratzaileak jasotzen baldin badituzte, eta haien autonomia garatzeko lan egiten baldin bada, ez direla kartzelara itzultzen. Hori da klase baztertuak deskriminalizatzeko eta zigor sistema progresiboki deuseztatze bidea.

César Manzanos Bilbao.
Soziologian doktorea, EHU/UPVko irakaslea,
Arabako Salhaketako ordezkarria



Astra, kultur sormenerako, elkarrekintzarako, esperimentaziorako eta aldaketa sozialerako proiektua

1998tik itxita egondako arma fabrika zaharra berreskuratzeko asmoz elkartutako hainbat kolektibo eta elkarte gernikarrek bihurtu zuten Astra fabrika sozial bat. Proiektua 2012ko abenduan jaio zen, kultur sormenerako, aldaketa sozialerako, elkarrekintzarako eta esperimentaziorako gune irekia izateko helburuarekin. Eraldaketarako egitasmo kolektiboa denez, deseraikitze eta berreraikitze gaitasuna daukan identitate komunitarioa garatzea izan zen lehen urratsa. "Guztiona" den espazio bat da, baina, era berean, inorena ez dena. Nornahik erabili, kudeatu eta zaindu dezakeen leku bat, betiere, eraikinarekiko eta proiektuarekiko ardura partekatuz.

Astran hezurmamitutako prozesu parte-hartzailea ulertzeko, 2005ean merkatuaren interes espekulatiboen aurka eraikinerari sartu eta hura okupatzea erabaki zuten gazte haiengan jarri behar da begirada. Gazte asanbladatik sustatu ziren okupazioa eta kudeaketa, abiatu nahi genuen bideari buruzko ikuspegi ireki eta integratzaile batetik egin ere. Astrak okupazioa, autogestioa eta batzar bidezko sistema ditu oinarri. Ekinbidea, nagusiki, parte-hartzean oinarritzen da, hark ahalbidetzen baitigu pertsona eta taldeoi objektu huts izateari utzi eta gure erabakien subjektu izatea.

Hainbat jatorri, ideologia eta lan moldetako pertsona eta kolektiboren arteko elkarbizitzak laguntzen du enpatia eta elkarlana garatzen. Askotariko pentsaerak dauzkaten eragileak bizi dira elkarrekin Astran. Diferentziak oztupo gisa ulertu ordez, gure

burua eraiki eta aldatzeko modu gisa kudeatu nahi dugu aniztasuna. 80ko eta 90eko hamarkadetako garaia gatazkatsuen ostean, gaur egun gai izan gara elkarrengandik urrun dauden iritzi politikodun pertsonekin espazio partekatuak sortzeko. Ongizate komuna elkarte edo kolektibo bakoitzaren interesen gaineratik dago. Gure nortasuna eta gure oinarri filosofikoak definitzea —partekatutako ideietan oinarrituta— ezinbestekoa izan da gizarte-aldaketak ikuspegi sozial, ekonomiko eta kultural desberdinak barne har ditzan.

Gizarte-mugimenduen arteko elkarlanak gure pentsaera aberasten du, eta gure sormenerako eta artikulazio sozialerako gaitasuna handitzen du. Egitasmo edo ekintza berriak sortzean, errealitate sozialei buruz ikasten ari gara, ekintza-eremuei buruz, baliabideei buruz... Astra bizitzaren gainean eraikitzen da; hausnartzea, akatsak egitea, elkar laguntzea eta elkarlana gure ikasketa prozesuaren parte dira. Espazio honetan elkarrekin bizi garen eta hura eraikitzen dugun pertsona, elkarte eta mugimenduok osatzen dugu Astra, baina baita eraikinaren eguneroko kudeaketarako eta erabakiak hartzeko prozedurek ere.

Azken 10 urte baino gehiagootan egindako bidean, pertsona eta gizarte-mugimenduok burujabe izatea lortu dugu, gure jarduera elkarlanean eta autogestioan oinarrituz. Elkartzen, antolatzen, erabakiak hartzen, adostasuna bilatzen eta gure helburua betetzeko sareak sortzen ikasi dugu. Ondorioz, gaur egun sortzen ari diren ekinbideek gaitasuna dute proiektu



Astrak utzitako irudia.

burujabe eta autonomoetan gorpuzteko. Astra ez da helburu bat bere horretan, gizarte-mobilizatorako eta alternatiben garapenerako baliabide bat baizik.

Gure kultura eta historia defendatzera eta zaintzera bultzatu gaituen errealitate politiko eta sozial oso zehatza izan du Euskal Herriak hainbat mendetan. Egoera horrek nabarmen eragin die bertako herritarrei; kontzientzia eta lan kolektiborako gaitasuna duten subjektu politiko bihurtu dira. Astra osatzen dugun kolektibook askotariko borrokatako kideak gara: memoria historikoa, ekologia, feminismoa, eta abar. Horrek, alde batetik, kolektibook borroka horietako protagonista gisa aitortzeko aukera ematen du, eta, bestetik, euren aldarrikapenak gure eguneroko agendan txertatzea ahalbidetzen digu.

Egunero eragiten dugu aldaketa. Deseroso sentiarazi eta errebelatzera bultzatzen gaituen sistema eta errealitate batean bizi gara. Gure proiektua tokikoa da, Gernika herria bera eraldatu nahi dugun neurri askotako kolektiboak elkartzen gara bertan, baina gure interesa harago doa: mundua eraldatu nahi dugu. Helburu komun horrekin lan egiten dugu; elkartrukean jardun eta sarean lan egiten duten

ehunka elkarte gara, gure herriko eta eskualdeko mugetatik askoz harago.

Autogestioa eta ahalduntzea dira eraldaketa sozialerako gure tresna nagusiak. "Ezinezkoa okupatu / Okupa lo imposible" leloa egia bihurtu izanak pertsona eta kolektibo gisa ahaldundu gaitu, eta maila lokalean zein globalean aldaketak eragiteko gai garelako ohartarazi digu.

Astra



Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

• jineoloji

• www.jineolojidergisi.org

Jineoloji, emakumeen eta elkarbizitza librearen zientzia

Joandako mendeetako emakume bat eskuko tornu batekin. Emakume horrek baliabide naturalekin lotzen ditu bere eskulanak, eta bere pentsamendua eta ehun berriak sortzen ditu. Hari berri horiek beste batzuekin elkartu daitezke, sareak eta ekintza berriak sor ditzakete: egonkortuz, luzatuz eta zabalduz. Emakume hori Jineoloji Akademiaren logoa eta kontzeptua da.

Jineoloji Kurdistango emakumeen mugimenduaren abangoardiarekin garatzen den zientzia berri bat da. Herriaren eta emakumeen autodefentsarako 40 urteko borroka sozial, ideologiko, politiko eta armatuaren lorpena da. Bat egiten du gizarte demokratikoaren, ekologiaren eta emakumeen askapenaren paradigmeekin. Kurdistanen sortu arren, izaera internazionalista du, eta mundu osoko emakumeak elkartzeko ahalmena du. Horiek horrela, Latinoamerikan eta Europan, halaber, zientzia hau zabaltzen hasi da.

Abdullah Öcalanek, herri kurduaren, askatasun egarri diren pertsona eta herri askoren gidariak proposatu zuen lehen aldiz Jineoloji kontzeptua. 2008an, berak azaldu zuen emakumeen zientzia baten beharra, "Askatasunaren soziologia" liburuan.

Garrantzitsua da ulertzea Jineolojik ez duela feminismoaren beste adar bat ireki nahi. Alabaina, ulertu behar da emakumeek milaka urtetan egin duten borrokaren eta feminismoaren oinordekoa dela. Emakumearen ikuspuntutik zientzia guztiak barne hartu nahi dira, eta oraindik idatzi ez den historiaren arabera berrebaluatu nahi da oraina. Historia ezkutu bat. Emakumeen eta matxinadaren historia bat.

Funtsean, egun ezagutzen dugun historia beti idatzi da boterearen eta menpekotasunaren al-

detik. Boterea emakumearen esplotazioaren eta zapalkuntzaren bidez eraiki zen. Ildo ideologiko guztiak, zeinetan zibilizazio kapitalista oinarritzen baita, besteak beste, gizon hauek sortutakoak izan dira: Aristotelesek, Freudek, Kantek, Newtonek... Baina "Zibilizazio Demokratikoa" deitutako ildo ez zen guztiz suntsitu. Giza zibilizazioaren hasieratik kultura matrizentral, bizitza komunal eta berdinzale eta askatasunaren aldeko borroka gisa azaldu zen.

Jineolojik ez du onartzen zapalkuntza-sistemak margotu duen emakumearen irudia. Sistema horretan, emakumearen papera soilik irudika daiteke haurren amaren eta hazlearen, etxeko esklaboaren, ordainsaririk ez duen edo ordainsari minimo bat duen langilearen eta objektu sexualaren eremuan. Irudi horrek bere izaerarengatik mendekoa, ahula eta irrazionala izango litzatekeen izaki gisa erakusten du emakumea. Kontrako aldetik, alabaina, emakumea gizartearen, berdintasunaren eta justiziaren, elkarren arteko laguntzaren sortzaile eta askatasunaren babesle gisa ikusten dugu. Emakumea esklabo bihurtzearekin batera, gizarte osoa lotu zen esklabotasunari. Zentzu horretan, emakumearen askapenak gizarte osoaren askapena ekarriko du, halaber, berekin.

Zientzia, egun, positibismoan dago oinarrituta. Horrek esan nahi du datu neurgarrietan soilik oinarritzen dela, eta gainerako guztiak baztertzen eta ukatzen dituela. Aldi berean, zientzia hau, ahalik eta neutralena izan nahi duen arren, ideologia patriarkaletik dator. Bere burua mantentzeko eta birsortzeko sistemaren tresnarik eraginkorrena da. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela bizitzaren, naturaren eta izakiaren egia deskubritzen saiatuko den emakumeen zientzia bat.

Zehazki, Jineoloji Rojavan, Siria Iparraldeko Konfederazio Demokratikoaren barruan hasi zen bere sisteman aurrera egiten. Egun, atek zabaldu dituzten hiru ikerketa-gune daude. Gune horietan, ikerketetan aurrera egiten duten batzordeak daude. Aldi berean, Jineolojik gizartearen egitura guztietan sartzen ditu bere ordezkariak. Horrela, bere zortzi lan-eremuekin lotuz antolatzen da erakundeen barrutik: etika eta estetika, ekonomia, demografia, ekologia, historia, osasuna, hezkuntza eta politika. Horrela, lan guztiak dira gizartearenak eta gizarterako, eta emakumearen ikuspegia barnean dago; era berean, arlo guztiak hertsiki lotuta daude elkarren artean.

Siria Iparraldean soziologia ikertzea izan zen Jineolojiren lehen lana. Eskualdeko pertsonen egindako elkarrizketen, erakundeetara eta leku zaharretara egindako bisiten eta eguneroko bizitzaren behaketen bidez, Jineolojiren ikerketa-taldeak urtebetetik gora aritu dira lanean. Halaber, iraganaren eta orainaren arteko interrelazioa ikerketen eta bizitza ulertzeko moduen oinarrian dago. Horrela, Jineolojik argitu nahi du emakumeen bizitza iraultzarekin nola aldatu den, eta bereziki zein puntutan dagoen oraindik aldatzeko beharra. Jineoloji iraultza horretaz elikatzen ari da, eta, aldi berean, horri bide ematen. Eskuz esku doan bide bat da.

Historia orainaren bidez ulertzeko prozesuak eta oraina ulertzeko prozesuak garrantzi handia dute. Eraso asko bizitzen ditugu emakumearen eta bere historiaren gainean sistema patriarkalaren aldetik. Sistema hori dituen bitarteko guztiekin saiatzen da emakumeen bertute guztien arrastoak suntsitzen. Adibiderik nabariena dira egunotan Estatu turkiarrak Afringo populazioari eta bere identitate guztiari -hildako gehienak zibilak dira, bereziki emakumeak eta haurrak- egin dizkion erasoak. Halaber, kultura matrizentrala dokumentatzen duten gune arkeologikoak (esaterako, Ain Darako tenplua) suntsitu dituzte bonbardaketek.

Heziketa da Jineolojiren beste puntu garrantzitsu bat. Hezkuntzaren bidearen bidez, Jineolojik egindako emaitza eta pentsamendu guztiak gainerako gizartearekin partekatzen dira. Horiek horrela, emakume -eta baita ere gizon- asko hurbildu dira zientzia honetara, eta bizitza beste ikuspuntu batetik ikusten hasi dira. Badira adibide batzuk, non emakumeek kontatu baitzuten beren senarrek, soilik hiru heziketa-egunen ondoren, asko aldatu zutela emakumeekiko hurbilketa eta errespetua, eta eguneroko etxeko lanetan eta hurrekin laguntzen hasi zirela, eta hori ez zen inoiz gertatu ordura arte.



Pintore: Zehra Dögan.

Sistema konfederalaren erakunde guztietan, Jineoloji erakusten da mintegitan eta eztabaidatan. Halaber, akademietan eta komunetan Jineoloji eskolak ematen dira. Heziketa komunaren sisteman Jineoloji klaseak daude 10. gradutik 12. gradura arte. Horrez gain, iaz, Jineoloji fakultateak bere atek zabaldu zituen Rojavako Unibertsitatean. Unibertsitatearen modu klasikoa aldatzeko eta eztabaiden, ikerketen eta elkarren arteko ikasketaren bidez modu irekiago bat garatzeko saiakera da hau.

Oro har, ikusten dugu Jineolojiren kontzeptuarekin emakumeek jakin-min handia garatzen dutela, ulertzen dutelako deskubritu ditzaketen gauza asko daudela bizitzan. Esaterako, hizkuntzan lekuen izenekin, kulturen, ohituretan, esateretan, musikan eta abar. Alabaina, baita mitologiaren, erlijioaren, filosofiaren eta zientziaren berrinterpretazioarekin ere deskubritzen dute bizitzarako makina bat arrazoi. Deskubrimendu horiekin guztiekin, pixkanaka, sakonago ulertu dezakegu nortzuk garen eta zein den giza izaera. Horiek horrela, emakumeak nahiz gizonak elkarrekin bizi ahal izango dira askatasunean, desberdintasunekiko errespetuari dagokionez berdintasunean, bizitza komunalean eta inguruarekiko orekan oinarrituz.

Victoria Krieger.
Jineolojî aldizkariko kidea

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak



Izenburua: La educación en movimiento

Tokia, urtea: Argentina, 2017

Zuzendaritza: Malena Noguera eta Martín Ferrari

Produkzioa: Malena Noguera eta Martín Ferrari. Produkzio-zuzendaritza: Paula Asprella eta Silvana Cascardo (Universidad Nacional de Tres de Febrero, UNTREF), UNTREF Mediarekin lankidetzat.

Sinopsia. *Gizarte-mugimenduek pauso bakoitzean ikasten dute, borroka bakoitzean, altxatzen duten eskola bakoitzean, hezkuntza beren eskuetan hartu dutelako. Emakume nekazariak ekoizti egiten dute, eta trebatu egiten dira beren lursailen nekazari-negozioaren aurrerapen betean. Irakasle eta ikasle indigenek beren historia aldarrikatzen dute eta beren hizkuntza berreskuratzen. Gazte zein helduek beren ikasketak amaitzea nahi dute, baina baita beren eskubideak defendatzeko antolatzea ere. Hezitzaileek eskolak eraikitzen dituzte beren komunitatearekin lankidetzan. Behekoen erresistentziak, berena dena, komuna dena defendatzeko, eta beste bizitza batzuk eraikitzeko, beste hezkuntza bat eta beste mundu posible bat.*

Zazpi esperientziaren protagonisten bizitzetatik eta ahotsetatik abiatuta, dokumentalak hezkuntzaren zentzua problematizatzea bilatzen du, hartaz pentsatzeko Gureamerikaren luze-zabalean, debatea zabaltzeko ea zer hezkuntza nahi dugun eta zer-nolako gizartetarako (Malena Noguera eta Martín Ferrari). <www.laeducacionenmovimiento.com>.

Izenburua: Inka Samana

Tokia, urtea: Ekuador, 2016

Idea eta produkzio orokorra: Sebastián Arias

Errealizazioa: Sergio Guzzetti eta Leandro Maldonado

Produkzioa: Mónica Malo Piedra eta Tamara Landivar

Zuzendaritza: Paul Cowan eta Amer Shomali

Iraupena 38 minutos



Sinopsia. *Inka Samana (gaur egun Yachay Kawsay) duela 30 urte sortutako hezkuntza unitate esperimentalak da, sorreratik bi zutabe nagusitan oinarritutakoa: hezkuntza-metodologia humanista bat inplementatzea eta kichwa-saraguro jatorrizko kultura sustatzea. Kontzientziaren eraldaketarako espazioa da, Izatearen eta Kulturaren garapena eta aktibazioa eskaintzen dituen, askatasunaren, maitasunaren, erantzukizunaren, errespetuaren, segurtasunaren eta kulturartekotasunaren bitartez (Argentinako Kantzelaritzaren La Voz de los sin Voz programa). <www.youtube.com/watch?v=WZWcvfu-qX8>.*

argitalpenak



Izenburua: Educación ecosocial. Cómo educar frente a la crisis ecológica
Egilea: Zenbait egile. Espainiako argitalpenak Rafael Díaz-Salazar, Víctor Rodríguez eta Yayo Herreroren kapituluak jasotzen ditu.
Tokia, urtea: Bartzelona, 2017
Argitaletxea: [FUHEM Ecosocial](#) e [Icaria](#)

Sinopsia. *Gure garaiko erronka globalek, klima aldaketatik hasita era guztietako gizarte-ondoez eta -gatazketetaraino, beharrezko bihurtzen dute benetako hezkuntza-iraultza bat, barneratzen ari gareneko mendeko asaldurei aurre egiteko tresnez hornituko gaituena.*

“Educación Ecosocial: cómo educar frente a la crisis ecológica” liburuak (“Hezkuntza ekosoziala. Nola hezi krisi ekologikoaren aurrean”) ingurumen-hezkuntzako arlo tradizionalak ikertzen ditu, hala nola, naturaren funtzionamenduaren ulermenean oinarritutako ikasketa eta pentsamendu sistemikoa, bai eta hezkuntzaren beste alderdi funtsezko batzuk ere, besteak beste, ikasketa sozio-emozionala eta jolasari garrantzi handia ematen dioten pedagogiak. Horrekin, La situación del mundo (Munduaren egoera) bildumako –Worldwatch Institutetako argitalpen nagusia– edizio honek hezkuntza nola birpentsatu ikertzen du, aldaketa globalera egokitutako gizarte jasangarri bat garatzeko xedez (FUHEM Ecosocial).

Izenburua: Interculturalidad y educación desde el Sur. Contextos, experiencias y voces

Egilea: María Verónica Di Caudo, Daniel Llanos Erazo eta María Camila Ospina Alvarado (Koord.)

Tokia, urtea: Quito-Ekuador, 2016

Argitaletxea: [Universidad Politécnica Salesiana Abya-Yala](#)



Sinopsia. *“Interculturalidad y educación desde el Sur. Contextos, experiencias y voces” Kulturartekotasunari eta Hezkuntzari buruzko gaur egungo debatearen inguruan aritzen diren lantalde latinoamerikarren bidez artikulatutako hainbat adskripzio instituzionalen hamazazpi egilek egindako 11 ikerlan burutzen dituen liburu kolektiboa da. Horrekin, irakurlea aldi berean honako hauetan pentsatzera behartzen dute: mugimendu edo desplazamendu teoriko-kontzeptualen multzo batean, posizionamendu etiko, filosofiko, politiko eta juridikoen hedapenean, eta Hegoaldean kulturarteko prozesuak sustatu nahi dituzten esperientzia, eredu eta programen dibertsitatea azalartzea eta haren gainean ekitea ahalbidetuko diguten ikerketa-metodologia berritzaileen garapenean. Obra, osorik hartuta, azken hamarkadan Latinoamerikari buruzko ikuspegi kritikotik sortzen ari den ekoizpen bibliografiko gero eta handiagoari egindako ekarpena da (Liburuaren hitzaurrea).*

erakundeak

Izen kolektiboa: Centro de Estudios del Pensamiento Latinoamericano (CEPLA) de la Universidad de Playa Ancha, Txile

Eragin-esparrua: Latinoamerika (Txile)

Webgunea: www.upla.cl/humanidades/c-e-p-l-a/#more-69



Borroka idealak. Pentsamendu Latinoamerikarreko Ikasketa Zentroa kultura latinoamerikarra ikertzeko eta hartaz gogoeta egiteko sortua da, kultura hori bizirik iraunarazteko eta kultura hori diziplinarteko ikerketaren bidez transmititzeko. Txileko Playa Anchako Unibertsitateko Filosofia eta Giza Zientzien Diziplina Saileko parte da, eta ekimen editorial interesgarria du: Cuadernos CEPLA <www.cuadernoscepla.cl>.

Bere xede nagusien artean honako hauek daude:

- Ikerketa diziplinartekoak egitea pentsamendu latinoamerikarraren arloan.
- Irakasleriaren hobekuntzan laguntzea, haren hezkuntza praktikei identitate kulturalarekin lotutako zentzua emanez.



Izen kolektiboa: Colectivo Insurgencia Magisterial

Eragin-esparrua: Latinoamerika (Mexiko)

Webgunea: insurgenciamagisterial.com

Borroka idealak. *Kazetaritza herritartasuna egiteko bidetzat hartzen duen hezitzaile kolektibo bat gara. Matxinada jarrera kolektibo, kritiko eta proposamenezkotzat daukagu, eta erdigunea kontsumismoan, indibidualismoan eta lehian kokatzen duten gaur egungo hezkuntza-proposamenen aurkako praktika alternatibotzat. Gure kolektiboarentzat, Freireri jarraituz, hezkuntza munduaren gaineko gogoeta eta ekintza prozesu bat da, hura eraldatzera bideratua. RED-Incidencia Civil en la Educacióneko, Campaña Latinoamericana por el Derecho a la Educacióneko eta Federación Sindical Mundial Méxicoko kideak gara.*

Insurgencia Magisterial web atariak bi sail iraunkor handi ditu; lehenak egunero hamar artikulua argitaratzen ditu batez beste, eta bigarrenak gaikako hainbat sail ditu, hala nola, "Frentes de lucha", "Enfoques", "Formación para la descolonización", "La caverna", "Revistas", "Booktuber" eta abar (Insurgencia Magisterial web ataria).

ezinbesteko
agenda



Ekitaldia: "Pedagogia emantzipaziozkoak praktikatu, trebatu, birpentsatu eta zalantzan jarri - Aktualitateak eta eztabaidak" nazioarteko solasaldia

Lekua eta eguna: Paris, Frantzia. 2018ko ekainaren 8a eta 9a

Informazio gehiago: www.emancipaeda.hypotheses.org

Solasaldiaren helburuak:

- *Frantzian eta frantsesez ezagutarazi eta zabaldu korrante pedagogiko hauek, Paulo Freiren pentsamenduak eta praktikak sortutakoak, batez ere ikusirik garapen teoriko eta praktikoetan ugaritze bat dagoela, zapalkuntzaren zein arrazakeriaren aurkako pedagogietatik eta pedagogia feministetatik hasita, pedagogia queer, deskolonial eta, gaur egun, intersekziozkoetaraino.*
- *Gaur egungo egoeraren panorama bat egin, hala ekoizpen teorikoei dagokienez nola adierazpenen, praktiken inplemetazioen, praktika alternatibo/subalternatiboen esperimazioen (Guénif 2016), erresistentzia mugimenduen ("udaberri arabiarrak", okupa suminduak, "plazetako mugimenduak" - Tahir, Taksim, Gaua zutik...-, Zad, migratzaileen babeserakoak) modu eta modalitateei dagokienez (Solasaldiaren antolakuntza batzordea).*

Ekitaldia: "Topaketak, Elkarrizketak eta Kontakizunak Hegoaldeetatik"
Antropologiako Nazioarteko IV. Kongresua

Deialdia: Asociación de Antropólogos Iberoamericanos en Red (AIBR),
Granadako Unibertsitateko Migrazioen Institutuarekin eta Antropologia Sailarekin
lankidetzan

Lekua eta eguna: Granada, Andaluzia. 2018ko irailaren 4tik 7ra

Informazio gehiago: www.2018.aibr.org



Ekitaldi honetan, elkarrekin topo egitea, solas egitea eta kontakizunak eraikitzea proposatzen dizuegu. Horrela, lekuak testuinguru bihurtzen ditugu, hau da, esanahi soziala duten espazio. Errepara diezaiogun, gainera, paradoxikoki Antropologiaren aldetik behar adina aitortzarik eta arretarik jaso ez duen testuinguru bati: Hegoaldeak. Hor egin dezagun topo, ez Hegoalde geografiko hutsetan, ezpada Hegoalde epistemikoetan. Solas gaitezen diziplinak Hegoalde horietan bizi diren pertsonetara dituen konpromisoez, eta eraiki ditzagun eraikitako diferentziak azkenetako desparekotasun nola bihurtzen diren ulertzen lagunduko diguten kontakizunak (Kongresuaren antolakuntza batzordea).

matxino artean
en rebeldía

QUE
CAIGA
esta

Educación

de

MERCADO

Golpe a golpe, verso a verso
Con las ganas y el aliento
Con cenizas, con el fuego
Del presente con recuerdo
Con certeza y con desgarrro
Con el objetivo claro
Con memoria y con la historia
El futuro es ahora

Anna Tijoux "Shock"